

ARGIA

AMAGOIA GURRUTXAGA ETA XIMUN FUCHS

“Kultura gaixorik bada, hizkuntza ezin bizi”



44-49. orrialdeak

#2.918 | 2025 / 05 / 25 | 4 €




**Gatazkei nola heldu
eskuin muturra
elikatatu gabe**

24 | GASTEIZKO
ESPERIENTZIA BAT



**Zergatik izan
zen iazko uzta
batez beste %45
eskasagoa?**

30 | BARATZEA



LARRUN #307
**Antiwokismoa,
zapalduen hitza
zokoratzeko
asmakizuna**

ARGIA.eus/podcast

BERANDUEGI



Bi ostiralean behin **argia.eus**-en

DENA EZ DAKIGU,
BAINA
EZ GABILTZA
URRUTI



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
- HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO IRUDIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Iritziak

- 19 | IKER IRAOLA
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | IÑAKI MURUA
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | NEKANE TXAPARTEGI

Finkoak

- 36 | ARGIA KOMUNITATEA
- 37 | DENBORAREN MAKINA
- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | DENBORA-PASAK
- 52 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

DOS POR DOS



24 | BIZILAGUNEN GATAZKAK NOLA KUDEATU ARRAZAKERIA ELIKATU GABE

Gasteizko Judimendi auzoko esperientzia kontatu du Zigor Olabarriak. Elkarbizitza arazoak sortu zirenean, bizilagunek auzo elkartera jo zuten, ez Poliziara. Eta auzo elkarrekin, berriz, Batuta elkartasun sarera. Bitartekaritza lana egin zuen Batutak bizilagunen artean.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Banku handiek klima aldaketan inbertitzen dute

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | ARLETTE APRAIZ

"Herriak hasieratik sinistu zion sexu abusuen biktimari"

Onintza Enbeita

30 | ELIKADURA BURUJABETZA

Iazko udako uzta txarretik bildutako irakaspenak

Estitxu Eizagirre

34 | ELIKADURA BURUJABETZA | AMILLUBI

Antolaketa kolektiboa eta erreleboa aztergai

Estitxu Eizagirre

44 | KULTURA | EUSKARAZ SORTUZ (EZIN) BIZI

"Sinpatikoak izaten saiatu gara, baina horrek ez digu funtzionatzen"

Gorka Peñagarikano eta Maia Muruaga

50 | KULTURA

Tarsila do Amaralen lana Bilbon

Jones Alaitz Uriarte

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Gobernua

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Unai Lomana,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Lander Gonzalez, Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzarde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

 **iametzta**
ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukia kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202506489


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.

Bizi ala esan?

Ingelesez Fomo deitzen diote. Zerbait galtzeko beldurraren sindromea. Etengabe konektatuta egoteko beharraren ondorioz, sare sozialetan besteek atseginez edo inbidiaz ikusiko dituzten moduko bizipenak partekatu behar. "Ikusi, nik ere hori bizi izan dut". Azken izardun jatetxeko txuleta, munduko beste puntako kala ezkutu eta preziatuena, bi urte lehenago erositako BECeko kontzertuaren sarrerarekin selfiea... Une gogoangarriak momentuan bizitzeari gailentzen ari zaio mugikorraren kamerak jaso duena ondoren erakustea. Norberaren buruari "ni ere banaiz" berresteko era garaikidea omen. Zerbait "galdu" izanaren bizipoza gogoratu beharko dugu, bizipenen lehiaketa honetan inperfekzioak dituen errebeldia eta edertasunarekin batera.

📷 Txinako Jinango Chaoran dorrea. WANG J./GETTY

✍️ AXIER LOPEZ





Aroztegiako epaiketa abian, talde kriminaleko kide izatea leporatuta

ARGIA



@GARESKOI

Maiatzaren 19an hasi zen Aroztegiaren aurkako epaiketa. Auzi honetan akusatuek publiko egin dituzte orain arte egondako negoziazio saioak, zeinak porrot egin duten. Akordiorik egon ez denez, Garbiñe Elizegi, Aintzane Ariztegi, Eñaut Beristain, Eki Arantza Etxandi, Gorka Lournaga, Garazi Sarobe eta Itziar Torresen aurkako epaiketa hasi zen 19an.

AKUSAZIOAK

Bi akusazio dira. Batetik, talde kriminala osatzea, eta horregatik eskatzen dizkiete urtebeteko kartzela zigorra eta denbora berean kargu publikorako hautatuak izateko debekua. Bestetik, derrigortze edo bortxa delitua, 22 hila-beteko kartzela zigor eskaerarekin. Bi urtetik gorako zigorrarekin zuzenean espetxera joango lirake, eta hortik beharakoarekin ez, aurrekari penalik ez dutelako. Horrez gain, 41.000 euro TEX eta Explotaciones Forestales Queipo enpresei ordaindu beharreko kalte-ordain gisa.

OBRAK GELDITU ZIREN EDO PROIEKTU OSOA?

Auzi honetan hau da gako garrantzitsuenetakoa. Akusazio partikularra –Palacio de Aroztegui– etengabe saiatzen da adierazten akusatuek ez zituztela bakarrik obrak geldiarazi,

Epaietako lehen egunean protesta jendetsua egin zen auzitegi atarian. ARGIAk epaietaren jarraipena egingo du www.argia.eus webgunean

Aroztegiako proiektu osoa gelditu zutela, eta horrek sekulako kalte ekonomikoak ekarri dizkiela: 46 milioi euro.

Horregatik, 2021ean bertan, Nafarroako eta Espainiako gobernuei 43 miloi euroko kalte-ordainen eskaera egin zien. Eskaeraren oinarria honakoa da: bi gobernuek obrak babesteko beharra zuten eta ez Foruzaingoak ez Guardia Zibilak ez zuten ezer egin langileak babesteko, eta legezko proiektu batek aurrera jarraitu ahal izateko. Nafarroako Gobernuak ez zuen onartu eskaera, eta Palacio de Arozteguiak auzitegiatara eraman zuen. Une honetan ez da publiko prozedura hori zertan den, baina litekeena da epaietan argitzea.

Astekari hau itxi zen egunean abiatu zen epaiketa Iruñeko Zigor Aretoko 3. epaitegian. Protesta jendetsua egin zen auzipetuei babesa adierazteko. ARGIAk epaietaren jarraipena egingo du www.argia.eus webgunean. ●

MOTZEAN

José 'Pepe' Mujica, gerrillari tupamaro ohia eta Uruguaiako presidente izandakoa, maiatzaren 13an hil zen, 89 urte zituela, minbizi baten ondorioz. Latinoamerikako presidente maitatuenetakoa eta karismatikoenetakoa izan da.

Pasaiko Udalak aurkeztutako helegitea atzera bota du epaitegiak. 2023an B1 euskara-maila eskatu zuen udalak kale garbitzaile posturako, baina horren kontrako epaiak eman zituzten epaitegiek. Epai horien aurkako helegiteak atzera bota dituzte orain.

Bartzelonako portutik Israelera armak garraiatzeagatik bi merkataritza ontzitako kapitainak ikertzen ari dira. Prou Complicitat giza eskubideen aldeko taldeak Danimarkako Maersk enpresako bi ontziren aurkako salaketa jarri du, Bartzelonatik Israelera F-35 ehiza hegazkinen atalak garraiatzea egotzita.

Israelgo Segurtasun Kabineteak Gazaren aurkako lurreko erasoaldia gogortzeko plan bat onartu zuen maiatzaren hasieran, zerrendaren erabateko okupazioa eta han bizi diren palestinarren garbiketa etnikoa xede dituen. Maiatzaren 16an Israelgo armadak iragarri zuen martxan jarri duela ofentsiba hori.

Etxegabeen kontrako bi eraso egin dituzte Bilbon eta Lekeition. Maiatzaren 17an gizon batek Bilboko Zorrotzaurreko pabiloi bat erre zuen, bertan bizi diren etxegabetutako pertsona batzuen kontra egiteko. Joan den astean Lekeition, kalean bizi den pertsona baten ohea erre zuten.

MELOI SALTZAILEA

Konbertsio terapiak



JUNE FERNANDEZ

Marioker guztiok nola, erreferenteen egarri nintzen nerabezaroan, bisexuala nintzela onartzeko prozesuan, eta bakan batzuk topatu nituen: Skin, Skunk Anansieren kantaria (tartean ez nekien bisexuala zenik, baina radarrak funtzionatzeko zidan), Lucía Etxebarriaren *Beatriz y los cuerpos celestes* eta *Girl, interrupted* filma (gaztelaniaz ikusi nuen: *Inocencia interrumpida*).

Azken lilura horrek ezinegona eragin zuen nire etxean. Ospitale psikiatriko bateko pazienteak ziren Winona Ryder eta Angelina Jolie gorpuztutako protagonistak. Lehenengoarekin identifikatu nintzen, seguruenik bigarrena desiratzen nuelako (Angelina Jolie ere bisexuala da, eta hori ere gerora jakin izan dut).

Nire aitaordea psikologoa da, espainolista, inperialista, matxista eta LGBTQIA+fobikoa. Filma ikusi genuenean esan zidan kezkarria zela nire identifikazioa, kontuan hartuta Mugako Nortasunaren Nahasmendua zuen pertsona psikiatrizatu bat zela; baina tira, nigan ere ikusten zituela nahasmendu horren zantzuak. Patologizazio ariketa hori izan zen eragin zidan indarkeria mota bat, ez bakarra.

Borderline izena erabiltzen da etiketa hori izendatzeko. Nik ironikoki *wonderline* nintzela idatzi nuen aitaordeak agindu zidan ataza kognitibo-konduktual batean. Tartean, ez nuen kuir mugimendua ezagutzen, ez nuen lexikorik aldarrikatzeko mugak, periheriak, bazterrak, bide okerrak direla nire bizitokiak. Etxetik alde egin nuen 17 urterekin.

Seguruenik, nire aitaordeak unibertsitatean ikasi zuen bisexualitatea nahasmendu hori diagnostikatzeko sintoma bat dela; orduan bisexualitatea bera ere diagnostiko psikiatriko bat zen. Osakidetzako webgunearen arabera, Nortasunaren Aldakortasun Emozionalaren Nahasmendua izena ere erabiltzen da, eta jakin badakigu bisexualoi leporatzen zaigun ezaugarri bat (aktibistok aldarrikatzen duguna) aldakortasuna dela.

Egun hartan, nire aitaordeak esan zidan konbertsio terapien aldekoa zela. Sutan jarri nintzen. Nire ama isildu egin zen orduan, baina hogeitaz urteren ondoren, eztabaida batean, argitu zidan bat zetorrela.

Miloi bat sinadura (nirea barne, espero dut zuenak ere) bildu ditu egitasmo batek Europako Bata-sunean konbertsio terapiak lege debekatzeko. Premiazkoa dugu, nahiz eta jarraituko dugun bizitzan aurrera egiten jakinda gure inguruko askok nahiko luketela gu sendatu edo, behintzat, zuzendu. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Biobio




ULA IRURETAGOIENA

Bio etiketadun sagar edo tomate bat erosten dugunean, sagar edo tomateari osasungarri hitza lotzen diogu eta lurra zaintzen ari den nekazaria irudikatu dezakegu. Lurraren zaintzari jarritako mimoagatik, erosketaren prezio altua ulerkorra egiten zaigu. Sagarraren erosketak lurraldetasunaren balio gainjarria du, ekintza politiko bilakatzen da ia-ia. Bio eraikuntzarekin antzera pentsa dezakegu. Baina baliteke oraindik hurbilago egotea sagar bio bat aukeratzeko egoeratik bio eraikuntzarako erabaki egoera batean izatea baino. Etxea margotzeko bio margo bat erabiliko ote dugun sintetikoaren orde, adibidez. Egurrezko altzari bat erosiko ote dugun edo egurraren antza duen material bini-likoaren (petroliodunaren) alde egingo ote dugun, adibidez. Ohitu gara usain, akabera eta estetika sintetikoetan bizitzera, denboraren galera gutxiko materialen zahartzetara, kolore eta testura gama amaigabera, mantenurik (lanik) emango ez duten espazioetara, azkar eraikitzeke epeetara. Kontrara, energia aurrezteko sistemak edo berriztagarrien txertaketak zabalpen handia dute gurean. Poltsikoan eragiten duten inbestitze ekologikoak direlako, batik bat.

Eraikuntzako bio materialek oihartzun gutxiago lortu dute euskal gizartean; gure eraikuntza ereduak aldaketa txikiak jasan ditu, Frantzia eta Alemaniako eraikuntza ereduarekin alderatuz. Dela ezezagutzagatik, prezioagatik, edo batzuetan, bio materialei erantsi zaien arkaiko famagatik. Bio materialekin gertatu ohi da zenbait bio produkturen ekoizpenari gertatzen zaiona: askotan kanpoan ekoizten direla; kalamuzko isolamendu panela Frantziatik ekarri behar izatea, adibidez. Gaur gaurkoz, bio material askok ez dute gertuko ekoizpenaren zigilua betetzen, bio sagarrarekin gertatzen ez den bezala, baina bio kinoarekin gertatzen den bezala. Bio eraikuntzaren etorkizuna aldatu egingo da eskaera igotzen hasten denean, hautuaren atzeko politiken ulermena kolektiboa izatera iristen denean bederen. ●

ANALISIA



Irakasleak, armairutik at

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Irakasleak armairutik ateratzea zergatik da garrantzitsua? Galdera horri erantzun dio hainbat irakasle ez-heterok, eta gogoetarako gako ugari utzi dituzte. Mundua deskubritzen eta identitate(sexual)a eraikitzen ari diren haur eta gazteek erreferente anitzak izatea eta eskolan denok espazio seguru eta eroso aurtitzea ederra baita.

Irakaskuntza maila guztietako irakasle gay, lesbiana, bisexual, ez-heteroak ageri dira STEILAS sindikatuak publikatutako bideoan, maiatzaren 17a LGTBIfobiaren Aurkako Eguna izan dela-eta. Garbi dute: irakasleek armairutik kanpo beren sexualitatea natural eta aske bizitzea inportantea da ikasle batzuk identifikatuta sentitu daitezen, ispilua izan dezaten. “Batzuentzat oasi bat izan daiteke, eta gainerakoentzat, aniztasunaren eredu hurbila”, dio Edurnek bideoan. “Izateko, egoteko eta jarduteko aukera desberdinak daudela” ikusten dute haur eta gazteek, gaineratu du Piker-ek. Azken finean, curriculumean aniztasuna hain hutsala denean, erreferente bihurtzen dira bakarrik sentitu daitezkeen LGTBI ikasleentzat eta oro har ikasle guztientzat, aniztasuna naturalizatzek badakarrarelako haur eta gazteak onartuago sentitzea euren sexualitatea garatzeko eta espresatzeko garaian.

Bideotik bi ideia nabarmenduko nituzke. Batetik, belaunaldiz belaunaldi aniztasunari gero eta leku gehiago ematen ari garen esperantza, zeren “batzuek ez genuen halako erreferenterik izan eta horrek sufrimendu handia eragin zizun”, dio Ainarak. “Nire identitate sexuala garatzen hasi nintzenean, ez neukan erreferenterik eta min handia sortu zidan, ez dut uste ume batek hortik pasa behar duenik. Mendeku gosea beharrean, maitasuna eta onarpena aurkitu behar dituzte, eta bide horretan erreferenteak behar dituztenez, hemen gaude”, azaldu du Almike-k.

Bestetik, ez gaitezen engaina, bullying homofobo, bifobo eta transfoboak oso presente jarraitzen du eskoletan (ere), eta ikasleek norbaitengana jo ahal izatea inportantea dela azpimarratu du irakasle batek baino gehiagok, konfidente rola hain da garrantzitsua heldu baten aholkularitza eta babes behar duen haur eta gaztearentzat –irakasle horrek duen sexu-joera duela ere-. Honela laburbildu zuen Usua Martinez hezitzaile lesbianak, ARGIAN (2.747 astekarian): ez da inor behartu behar armairutik ateratzera, ikasle bakoitzak bere armairuarekin duen prozesua errespetatu behar da, baina “inportantea da inplizituki ikasleei transmititzea laguntza behar badute hor zaudela”. ●

145.142

sinadura bildu ditu pentsio publikoak duintzeko kanpainak. Pentsio apalenak behintzat lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea da helburua. EHPM Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak Eusko Legebiltzarrean erregistratu du herri ekinaldi legegilea.

10

egun pantailarik gabe. "Pantailak utzi erronka" egin dute, maiatzaren 13tik 22ra, Ipar Euskal Herriko 25 eskolak eta 2.445 haur eta gaztek. Aisialdi eta denborapasan zentratzen da erronka, eta zazpigarren edizioa da.

77

urte igaro dira Israelgo Estatuak Palestinaren lurren %80 inguru indarrez okupatu zuenetik. 1948an sortu zen Israelgo Estatu eta ondorioz 800.000 palestinarrek euren etxeetatik alde egin behar izan zuten.

"EITB ordezkapen linguistikoan eta asimilazio kulturallean sakontzen duen tresna bilakatu da"



ALDATU GIDOIA EGITASMOA
ARGIA (2025-05-13)

"BIDASOA OSPITALEAREN MURRIZKETA ARGIA DA. BIZTANLEEN OSASUNA ARRISKUAN JARTZEN ARI DIRA"

ESK SINDIKATUA

Sindikatuak salatu du "aspalditik" ari direla osasun zerbitzuak gutxitzen ospitale horretan.

2025-05-14

"Isiltasun hori, une honetan, ekintza konplize bihurtzen da; gaur isiltzea torturatzailleak estaltzea da"

EH BILDU-K

lider politiko, instituzional eta komunikabideei esana, Espainiako Auzitegi Nazionalak Iratxe Sorzabalek tratu gizagabeak jasan eta horietan lortutako frogak ontzat jo izana aitortu eta gero.

ARGIA (2025-05-13)

TEKNOLOGIA

Adimen kolektiboa



DIANA FRANCO EGUREN

Animalia askok biziraupen estrategia gisa darabil taldearekin bat etortzea. Izaera hori mesprexatu da sarri, kolektibo asko artaldeekin parekatuz, gidatua izan behar duen izaera propiorik gabeko masa bailitzan. Baina kolektibitateak, mehatxua susmatzen duenean, badaki bere gaitasunak erabiltzen mehatxuaren aurka mobilizatzeko.

Datorren ikasturtean alaba institutura doa, eta informazio bileratxo bat egin dute gurasoontzat. Gauza asko azaldu dizkigute, haietako bi digitalizazioari lotuak: ezin dela mugikorrik erabili ikastetxean eta ikasle bakoitzari Chromebook bat maileguan emango diotela.

Gure herrian, badirudi gurasoak garen kolektibitate honetan mugikorra ikastetxean debekatzea ulertzen joan garela pixkanaka-pixkanaka. Aldaketa hori barneratzeko gurasok ez dugu inongo ezagutza teknologikorik, merkatu ezagutzarik edo elementu abstrakturik ulertu behar izan. Argi ikusi dugu guraso eta irakasle askok ikasleen arteko bortizkeri ubikuoari loturiko dinamikak saihesteko debekatu dituztela gailuak.

Chromebooka ordea beste mundu bat da, abstraktuagoa, egin dezakeen kaltea ez da hain bistakoa, merkatu dinamikak eta digitalizazioaren funtzionamendua apur bat ezagutu behar dira egin dezakeen kaltea ulertzeko. Gainera, Chromebooka ordenagailuz moztortuta eskaintzen digute. Zelan haitemango du familien kolektibitateak arriskua, ez badute Google enpresaren publizitate tentakulatuaren negozioari loturiko gailua ordenagailu batetik bereizi? Gainera, zelan esan haur bati klaseko ezberdina izango dela, Chromebooka erabiliko ez duen bakarra bada gelan? Zelan atera haurra ikastetxeak berak sortu eta sustatu duen dinamikatik?

Institutuarekin hitz egin dut eta ez dute arazorik alabak etxeko Linuxdun ordenagailua erabil dezan Chromebookaren orde. Baina kolektibitateak ez badu argi ikusten bortizkeria algoritmikoaren mehatxua, eta ikusita ere, horri aurre egiteko modua ez badago bere esku, ez da erraza izango herri honen adimen kolektiboan eragitea Chromebookak eta Google Classroomak ikastetxeetan debekatzeko. ●

NAZIOARTEA

Kontserbadoreak eta eskuin muturra garaile Portugalen

JON TORNER

Lehen ministro Luis Montenegro buru duen AD koalizio kontserbadorea gailendu da Portugalgo Legebiltzarrerako hauteskundeetan, bozen %61 lortuta –iaz %51 eskuratu zituen–. Irabazleen artean Chega eskuin muturreko alderdiko hautagai André Ventura ere badago, sozialistek bezainbat eserleku lortuta (58). Bozen %23,4 eskuratu du Alderdi Sozialistak, eta %22,6 Chegak.

Sozialisten emaitza kaxkarrek bultzatuta, alderdiko buru Pedro Nuno Santosek dimittitu egin du. Alderdi Sozialistak 50 urte daramatza bi alderdi bozkatuenetako bat izaten, baina egoera iraultzeaz da, aintzat hartuta diasporako bozkei esker ultraeskuinak diputatu bat gehiago eskura dezakeela sozialistek baino.

Donald Trumpi babesa eskaini eta alderdiko hainbat diputatu eta kargudun ziprztindu dituzten eskandaluak azaleratu izanagatik ere, gora egin du eskuin muturrak, gizarteak bizi duen ezinegonarekin gehiago kapitalizatuta: 2024an bozen %18 lortu zuen; 4,5 puntu egin du gora, beraz, immigrazioa edota ijitoak jo-puntu jarrita, besteak beste.

Mafalda Carvalho Zientzia Politikoen lizentziatua eta Filosofian dok-

toregaia (Portoko Unibertsitatea) da. Portugalgo hauteskundeetan inguruan idatzi duen analisi batean halaxe dio: "2022ko hauteskunde legegileei esker, Ventura buru zuen alderdia diputatu bat izatetik hamabi izatera igaro zen, eta zentro-eskuineko mapa politikoa eraldatu zuten, 1974tik lehen aldiz desagertu baitzen CDS-PP Parlamentutik. Chega hirugarren indar politikoa da orain, Alderdi Sozialistak eta Alderdi Sozialdemokratik sinbolizatutako bipartidismo klasikoaren ondoren. (...) Venturaren jarraitzaileak kritikoak dira globalizazioarekin eta migrazio-fluxuekin, eta kexu dira bi fenomeno horietaz: krisi ekonomikoak eta Portugalen geldialdia".

André Ventura Chegako liderrak diseinatutako estrategiak beste politikari erradikal eta populistak garakide batzuekin hainbat elkargune dituela dio Carvalhok, hala nola Javier Mileirekin, Viktor Orbanekin, Donald Trumpekin eta Jair Bolsonarorekin. Venturak immigrazioaren aurkako ideiak eta islamaren aurkako jarrera suttsua sustatu dituela azpimarratu du, eta uko egin diola LGTBIQ+ gutxiengoaren eta ijito-komunitateen eskubideak onartzeari eta errespetatzeari. ●



Portugalgo lehen ministro Luis Montenegro izan da garaile

IKERKETA | Laugarren zigorra PPko Antépararen enpresari obra ‘klandestinoak’ egitea egotzita

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Gasteizko Udaletxeko Hirigintza Sailak Luxury Rental Apartments SL enpresa zigortu du Pintore kaleko etxebizitza batean egindako obregatik. Enpresako partaidetzen %50 Gustavo Antépararena da, eta administratzailea bere bikotekidea. Luxuryk baimenik gabeko etxebizitza turistikoak alokatzen jarraitzen du. Antépara PPko kide esanguratsua da, besteak beste zinegotzia da Gasteizko Udalean eta EAEko PPko buru Javier de Andrésen hurbilekoa.

Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Sailak zigor berria ezarri zion 2025eko urtarilaren 16an Luxury Rental Apartments SL enpresari, ARGIAk jakin duenez. Gasteizko Alde Zaharreko Pintore kalean dago zigortutako etxebizitza, bigarren solairuan. Atariak lau etxebizitza ditu, bat solairu bakoitzeko, eta lauen jabe da Luxury. Baita etxebizitza gehiagorena ere, Alde Zaharrean zein beste auzo batzuetan.

Sailak “lizentziarik gabe eraikitakoaren eraisketa” eta “etxebizitza jatorrizko egoerara itzultzea” agindu zion enpresari, eta bi hilabeteko epea eman zion horretarako. Hirigintza Sailera deitu du ARGIAk espedientearen inguruko informazio eguneratua jaso nahian, eta eskuratutako informazio bakarra da espediente irekita dagoela. Horrek adieraziko luke Luxuryk helegitea aurkeztu duela.

2022ko azaroaz geroztik hainbat aldiz ireki ditu espedienteak Gasteizko Udalak Luxuryren aurka, gutxienez lautan azken hau kontutan hartuta, eta denak arrazoi berdinarengatik: etxebizitzetan eraberritze lan integralak egitea horretarako baimenik izan gabe. Hiru Pintore kalean, laugarren bat Hedegile kalean, denak Alde Zaharrean.

ETXEBIZITZA TURISTIKOAK

Luxuryk etxebizitza turistikoak alokatzen ditu urteak direla, horietako batzuk derrigorrezko baimenik izan gabe. 2023an bi baimen eskuratu zituen Pintoko etxebizitzetarako, baina Jaurilaritzaren Turismo Saileko iturri anonimo batek ARGIAri azaldu dio baimen horiek atzera botatzeko asmoa duela sailak.



Ezker-eskuin: Iñaki Oyarzabal, Javier de Andrés eta Gustavo Antépara.

Urteko kontu ekonomikoak azken aldiz 2021ean aurkeztu ditu Luxuryk Merkataritza Erregistroan, urtero aurkeztea derrigorrezkoa bada ere.

UDALA ETA GARDENTASUN EZA

ARGIAk hamaika aldiz eskatu dio Gasteizko Hirigintza Saileko Eraikuntza Zerbitzuari, urte batez, Pintore kaleko bi espedienteren inguruko informazioa, artikulua honetan aipatzen diren jarduerekin lotura dutenak. Hainbat aldiz ziurtatu dio Eraikuntza Zerbitzuko proiektu arduradun eta bi espedienteen egile den pertsonak hedabide honi informazioa igorriko ziola ondoren ez egiteko, eta hainbat hitzordu eta eskaera ofizial utzi ditu zerbitzuak erantzun gabe.

Berriki, zerbitzuko beste langile batek azaldu dio kazetari honi, zerbitzu juridikoei kontsultatu ostean, ARGIAk ez duela espedienteak ikusteko eskubiderik, ez delako “interesatu zuzena”.

LUXURY ETA ANTEPARA

Merkataritza erregistroaren arabera, gaur Luxury deitzen den enpresa 2003an sortu zen Grupo Enea Editorial enpresa sortu zen. Gasteizko Udaleko zinegotziek bete behar duten ondasunen erregistroaren arabera, enpresaren %50 du Antéparak. Enpresaren sorreratik bera izan da enpresaren administrazioaile bakarra 2022ko uztailera arte. Ordutik administratzailea Pilar Perosanz

da, Antépararen bikotekidea eta Gasteizko Udaleko etxebizitza turistikoaren araudia aldatzeko lobby lana egin duen Arabatur elkarteko presidentea.

JAVIER DE ANDRÉS GERTUKOA

Gustavo Antéparak ibilbide luzea du PPn. Besteak beste, Gasteizko Udalean zinegotzia izan zen 2016-2019 artean eta gaur egun ere bada, 2024az geroztik.

2024ko apirilaren 21ean Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ziren. Kanpainen zehar, ohikoa izan zen Antépara Javier de Andrés lehen-dakarigaiarekin eta bere taldearekin batera ikustea. Hauteskundearen gauean emaitzen balorazioa egin zuen De Andrések hedabideen aurrean. Telebista irudietan Antépara agertu zen bere ondoan atzealdean, Carlos Iturzaizen eta orduan Gasteizko Udaleko bozeramaile zen Ainhoa Domaicaren artean. Urtebete beranduago, 2025eko apirilaren, alderdien buruekin bilera erronda egin zuen Imanol Pradales lehendakariak, tartean De Andrésekin. Gustavo Antéparak lagunduta heldu zen bilera tokira.

****Informazio honen bertsio zabala goa irakurtzeko, eta Gustavo Antéparen negozioen inguruan ARGIAk urteotan argitaratutako informazio eskuratzeko, jo ARGIAren “Gustavo Antépararen negozioak” kanalera. ●**

BANKU HANDIEK KLIMA ALDAKETAN INBERTITZEN DUTE, BAINA EZ DA KONPONBIDEA SUSTATZEKO

Berria izateari utzi dio: beroketa globalak bi graduak gaindituko ditu, eta gainditze horrek ondorio oso garestiak ditu. Klimaren gaia tabu bilakatzen ari den testuinguru berri honetan, banketxe handiek

ez dute horri buruz komunikatzen, baina arazoaz ongi jabetu dira eta horren araberako inbertsio asmoak dituzte. Sute, urperatze edota lehorteen kalteen artetik, etekinak betirako atxikitzea espero dute.

 NICOLAS GOÑI

Azken urteotan entzun dugu han hemenka, nahiz eta hedabide handietan merezi duen estaldura ez duen izan, ezta hurrik eman ere: 2015eko Pariseko hitzarmeneko 2 graduako beroketa globalaren muga ziur aski gaindituko da datozen hamarkadetan, eta 1,5 graduak dagoeneko erabat galdutzat dute klimatologoek. 2100erako –hau da, gaur egungo jaioberriek Gor-ka Knörr edota Anje Duhalderen adina izanen dutenean, hori ez da hain urrun–beroketa globala gutienez 2,7 graduak izan daiteke. Hala zioen iazko COP29aren kariatara *Climate Action Tracker* (Klima Ekintzen Jarraitzaile) erakundeak plaza-ratu zuen txostenak. Stefan Rahmstorf ozeanografo eta klimatologoak iaz koordinaturiko lan batek 3 graduako beroketaren ondorioak deskribatzen ditu. Lan horrek sinpleki *Climate and Weather at 3 degrees more* (3 gradu gehiagotako klima eta eguraldia) titulua du, eta deskribapen zehatza darama: 3 graduz berotuz gero, hainbat milioi urtetan igaro ez duen tenperatura maila igaroko luke Lurra, eta ekosistemak, gizarteak eta azpiegiturak ez dira tenperatura horietara egokituak. Bereziki, beroketaren eraginak ez dira proportzionalak, hau da, 3 graduako be-

roketaren eraginak ez dira soilik gradu bateko beroketaren eraginen hirukoitza, baizik eta askoz gehiago, eta askoz larriagoak. Lur eremuek berotzen jarraituko dute, batezbertzeko globala baino askoz gehiago, eta hainbat eskualdek beroketa globala baino bi bider gehiago, edo gehiago ere, pairatuko dute. Hau da, tokian tokiko 6 gradu edo gehiagoko beroketa. Muturreko beroa maizago gertatuko da, eta giza hilkortasuna emendatuko du, lehenbizi ahulenak kolpaturik: txi-roak, kanpoan dabiltzan langileak, zaharrak, pertsona ezinduek...

Eremu tropikaleko zati handiak bertan bizitzeko beroegiak bihurtuko dira, adibidez, Indian, Asia hego-ekialdean edota erdialdeko Afrikan. Gainera, muturreko euriteak, uholdeak, idorteak, suteak eta uza galduak maizago gertatuko dira eta larriagoak izanen dira. Zikloi tropikalen suntsitze ahalmena handiagoa izanen da, itsas mailaren igoera zailutuko da, eta poloetako izotz gehiena urtuko da, hainbat estatu desagertzera kondenaturik. Desagertzeko zorian diren estatu ezezagun horiek urrun ditugu, hala nola, Marshall uharteak, Tuvalu edo Maldibak. Ezagunagoak eta populatuagoak dira Hego Vietnam, Bangkok

Thailandiako hirigunea, Bangladeshko lurraldearen erdia edota Niloko delta. Estatuak, Frantzia kasu, mende bukarako 4 graduako beroketara egokitzeke planak diseinatzen hasi dira, baina klimatologo askoren ustez halako beroketara egokitzea ez da oso errealista, ekonomia bera delako erabat desegonkortuko.

BANKUAK MOLDATZEN DIRA BAI, BAINA...

Horretaz ongi jabetu direla diote banketxe handiek, eta kalkuluak ere egiten hasiak dira. Sistema ekonomiko osoa eraldatzeko ekimenak bultzatzen ote dituzte? Tira, beharbada noizbait, baina ez oraindik. Badabilta bertzelako irizpideen arabera maila guak eta inbertsioak egiten? Bai, baina ez espero genitzakeenak. Adibidez, Morgan Stanley bankutik adierazi dute 3 graduako beroketa igurikatzen dutela, eta ekonomia deskarbonizatzeko ahalegin globala ahultzea erabaki dutela. Aztertu dute, adibidez, aire girotuaren merkata mundu mailan 235.000 milioi dolarrekoa dela, %3ko hazkundea izaten ari duela, eta 2030erako %7koa izan litekeela. Hori horrela, etorkizuneko in-



KLIMA LARRIALDIA

New Yorken, itsas mailaren igoerak munduko burtsa eta banku handien auzoaldea ere mehatxatzen du.

bertsioak sektore horretan egitekoak dituzte, eta oro har, Reuters agentziak azaleratu bezala, berotegi efektuko gasen murrizketari buruzko helburuak asko malgutu zituen jadanik iazko urrian. Ez da itxura egiteari utzi dion banketxe bakarra. Adibidez, Wells Fargo bankuak ere bere "net-zero isurtze" helburuak bertan behera utzi zituen martxoan, eta zero isurietara heltzearen alde dabilen bankuarteko aliantza batetik irten ziren urte hasieran Citi, Bank of America eta JPMorgan bankuak.

Bankuek berma dezakete erregai fosiletatik energia garbiagorako trantsizioa, baina "kapitala maila handian mugituko da ekonomikoki zentzuzkoa denean soilik". Hori adierazi zuen Mary Kate Bineckik, 60 herrialde baino gehiagoko 400 banku inguru ordezkatzan di-tuen Institute of International Finance Nazioarteko Finantzaren Erakundeko bozeramaileak.

ERREALISMOA?

Hor dago koska: ekonomikoki ez du zentzurik mende bukaerari begira erregai fosiletan inbertitzen jarraitzeak, gerorako etekinei bidea moztea litzatekeelako. Baina gaur egungo testuinguruan ez baldin badago metamorfosian inbertitzeko bultzada politikorik, bankuek ez dute ahalegina beren kabuz eginen. Iazko azaroan ondokoa zioen JPMorgan bankuko zuzendariaak: "Gobernuko lidergo konstruktiboa eta ildo politikoa ere beharrezkoak dira, bereziki zergei, baimenei, energia sareei, azpiegiturei eta berrikuntza teknologikoari dagokienez". Epe laburreko testuinguru politiko eta legala horretarako lagungarri ez zaieno, hondamendiak saihesteko behar den ahalegin globala ez dute banku handiek bultzatuko.

Baina arazoaren ukatze politikoak arazoaren eraginekin talka eginen duenean, zer egiteko gai izanen gara? Aseguratu ezinen diren jardueretan

bankuek ez dute inbertituko; nahitaez mailegu gutiago eta beraz interes gutiago egonen da, gobernu petroliozale batek hori ukatu arren. Aire girotuaren merkatuaren gorakadak ez ditu konpentsatuko mundu mailan pikutara joandako edota egokitzapen erraldoia behar-koduten merkataritzako azpiegitura handiak –Amsterdam eta Rotterdamgo portuak kasu–, zein ibai handien delte-tako milioika hektarea lur emankorren galerak –gaur egun ehunka milioi pertsona elikatzen dituztenak–. ARGIAren 2.831 zenbakiko *Klima aldaketa saihestu beharrean, egoerari egokitu: arrazional-tasun ekonomikoaren akatsak agerian* erreportajearen genioen bezala, mundu fisikoari begira argi da orain arte hartu-tako bidearen luzapenak zenbat kostako digun. Baina klima aldaketari serio-ski begiratu nahi bada, narratiba indartsu bat behar dugu, eta hori, oraindik sor-tzeke dago. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Arlette Apraiz

MILITANTE FEMINISTA



BESTE GERNIKA BAT DA HAU, HERRIAK HASIERATIK SINISTU ZION SEXU ABUSUEN BIKTIMARI



2023ko abenduan notizietara salto egin zuen Gernika-Lumok: bertako saskibaloï entrenatzailearen kontrako salaketa bat zegoen sexu eraso jarraituak egitearren. Sare Feministaren izenean, zurrumbilo mediatikoan murgildu zen Apraiz.



ONINZA ENBEITA  HIBAI AGORRIA / ARGIA CC BY-SA

2023ko abenduaren 16an eskandalu mediatiko baten erdian esnatu ziren gernikarrak.

Egun horretan egin zen publiko Mario López saskibaloï entrenatzailearen kontra salaketa bat zegoela. Salaketa 20 urte lehenago gertatutako sexu erasoengatik zen, eta orduan, biktimak 13 urte zituen. Lehenagotik ari ginen gaia lantzen, baina publiko egiteak dimentsioz aldatu zuen dena: ordura arte isilean generaman prozesua guztiek jakin zuten. Ordura arteko lana frustragarria izaten ari zen: gauzak gertatzen ari ziren, erasotzailearen inguruko posizionamendua argitzen ari zen, utzikeria ikusten genuen... ordea, ezin genuen ezer esan.

Zentzu horretan arnasa hartu genuen. Hitz egin genezakeen gaiaz eta herriko agenteak interpelatu genitzakeen, babesa aktibatu... lasaiago lan egiteko aukera eman zigun berria publikatzeak. Hori bai, oihartzun mediatikoak handi gelditu zitzaigun zurrumbilo batean sartu gintuen.

Zer dela eta eman zenituzten hasierako pausoak isilean?

Guk salaketaren berri jaso genuenean, datu gutxi genituen: duela 20 urte gertatutako sexu eraso jarraitu baten salaketa zegoela eta erasotzailea Mario López zela. Biktima bere prozesuan zegoen eta oraindik ez zen momentua publiko egi-

teko. Hori errespetatu egin genuen. Erasoen xehetasunak prentsa bidez jakin genituen guk ere. Gainera, Mario López Lointek saskibaloï taldeetik kanporatu zezaten bideratu genituen gure pausoak, eta prozesu hori ahalik eta ondoen egiteko diskrezioa eskatu zitzaigun.

Informazio gutxi izan arren, erasotzailearen izena bazenekiten. Zenbateraino izan zen gogorra bere postuan jarraitzen zuela ikustea?

2023ko uztailaren 3an egin genuen lehen bilera Lointekeko zuzendaritza-rekin, eta momentu horretan, Mario López bere izena zeraman umeen campus bateko arduraduna zen. Atera kontuak!



Arlette Apraiz Eizagirre

GERNIKA-LUMO, 1978



Sare Feminista xaloegia izan zela uste du Apraizek. 13 urteko neska baten kontrako sexu eraso jarraituez ari zirela ere, Gernikako saskibaloi klubak engainatu egin zituela dio. "Protagonismo nahia" eta interes politikoaren arabera jokatzeko" ere leporatu zitzaizkion Sare Feministako kideei. Badaki ez dela halakorik gertatuko, baina erasotzailearen kontrako sententziaren ostean, izen eta abizendun zenbaitek barkamena eskatu behar liekeela pentsatzen du Apraizek.

Urgentziaz eskatu genuen bilera pertsona hori umeen artetik ken zezaten, baina artean, jendeak ez zekien ezer. Isiltasun horretan, Lointekeko zuzendaritzak engainatu egin gintuen. Sinestarazi ziguten klubeko zuzendaritza benetan zegoela lotuta, eta tipoa ordezkazina zela! Erabiltzen zuten hizkuntza hori zen: palmaresa, ez dakit zenbateko maileguak eskatu dituztela taldea mantendu ahal izateko... inozentziaz hasi ginen klubarekin hizketan, denborak esan digu inozenteegi. Behin uda pasata, benetako aurpegia ikusten hasi ginen.

Gaia publiko egin zenean, klubak lehen komunikatuan gezurra esan zuela frogatu zenuten. Errelatoa eraikitzeko ezinbestekoak izan zarete.

Kasu honek badauka ezaugarri berezi bat: behin publiko egin zenean inork ez zuen adierazpenik egiten. Nortzuk dira edo gara entsalada honetako osagaiak? Erasotzailea da bat, baina normala denez, ez zuen adierazpenik egin. Kluba da beste bat, baina honetan guztian zuen ardura jakinda, isilik gelditu zen. Udala ere ezkutatu egin zen. Zelaia guztia libre gelditu zen, eta guk ikusi genuen aukera ezin hobia zela ikuspegi feministatik hitz egiteko eta emandako pausuak azaltzeko.

Herriaren gehiengoa biktimaren alde lerratu zen hasieratik, baina erasotzaileak ere izan du bere babesa. Nola bizi izan zenituzten zuek hurrengo hilabeteak?

Erasotzaileek beti izaten dute haien babes eremua. Kasu honetan gutxi izan dira, eta haien artean gotortu egin dira. Dena den, frustragarria da zuk hain argi ikusten duzun hori ikusi nahi ez duen jendea parean izatea.

2023ko abenduaren 17an manifestatzera deitu zenuten Gernika-Lumon eta abenduaren 23an agerraldia. Ekimen biak izan ziren bereziki jendetsuak. Erantzun hori zerk eragin zuela uste duzue?

El País-eko artikuluak barrenak mugitu zizkion hura irakurri zuen guztiari. Jendeak zerbait egiteko beharra sentitu zuen, eta guk horretarako espazioa eman genuen. Emakume bat bortxatzen dutenean beste elementu batzuk sartzen dira jokoan, baina ume

batek ez dauka errurik epai sozialaren aurrean, eta horrek ere jendea mugitzen du. Berriak medioetan izan zuen oihartzunak jendea etxetik ateratu zuen. Guk ezinegona erakusteko aukera eman genuen, eta jendeak biktimari babesa erakusteko bidea ikusi zuen.

Publiko egin zen momentutik epaiketara 13 hilabete joan ziren. Nola pasatu zen urte hori herrian?

Hasierako mobilizazioak izan ziren handienak, baina urte horretan gauza asko gertatu ziren: 2024ko urtarriaren amaieran umeenganako indarkeriari buruzko hitzaldia antolatu genuen, eta gaia kokatzen lagundu zigun. Hainbat tabernarik jo zuten guregana kezkatuta, López haien tabernara joaten zenean ez zirelako eroso sentitzen. Epaiketara begira, erasotzailearen babes eremua izan zitekeen hori interpellatzeko ahaleginean ibili ginen. Parte hartzen dugun beste eremu batzuetara eraman izan dugu gaia, bloga sortu genuen gertatutako guztia batzeko, mozioak aurkeztu udalbatzan... eta erasotzaileak herritar batzuk salatu zituen bera akosatu omen zutelako!

Gai honekin joan zarete parte hartzen duzuen beste eremuetara ere. Feminista izorranteak izan zarete?

Urte batzuk badaramatzagu jaietarako eraso sexisten kontrako protokoloak antolatzen, eta iazko kasuan elementu berri bat gehitu zitzaigun. Gure ustez, jaietan izan zitezkeen erasoengurua bakarrik ez, identifikatutako erasotzaile bat guk kudeatutako espazioetara etorritz gero egin behar genukeenaren inguruan ere hitz egin beharra zegoen. Ez da erraza izan, baina paper hori nahiko asumituta genuen. Hala ere: feminista izorranteak norentzat? Jaietan beti jai egiteko aukera izan dutenentzat?

Urte askotan militatu duzu zuk sare feministan, baina gai honek inoiz ez bezala jarri zaituzte erdigunean. Balio izan du sozialki herria aldatzeko?

Beste Gernika bat da hau, e! Eztabaida batzuk gauditu egin ditugu: biktimaren errelatoaren sinesgarritasunarena, adibidez. Hasieratik esan genuen sinisten genuela, herriak



sinistu egin dio biktimari eta guretzat hori garrantzitsua izan da. Gero, epai-ketara begira, atxikimendu eta babes kanpaina egin ditugu. Deigarria da adineko zenbat emakume etorri zaizkigun eskerrak ematera.

Jende askok esan zuen, hala ere, ez dela harritu. Inor ez bada harritu, zergatik ez du inork ezer esan biktimak hitz egin duen arte?

Emakumeen kirolean entrenatzaile ia guztiak gizonak dira edo izan dira orain arte. Eskema bera da susmagarria. Me-loi handia dago hor irekitzeko! Esateko modua da “sumatzen nuen”. Izan ere, gauza bat da zuk erasotzaileari momen-tu oldarkorrek ikusi dizkiozulako pen-tsatzeari norbaitekin hori baino gehiago pasatuko zela, baina hortik jakin dugu-nera salto handia dago.

Gernikan saskibaloiak jende asko mugitu izan du eta litekeena da jendeak bere buruari errua botatzea ez delako ezertaz jabetu.

Garai hartako jokalarien, baina batez ere haien gu-rasoen partetik jaso dugu sentimendu hori. Esan digu-tenez, ikusten zuten nolako tra-tua ematen zieten haien alabei, eta oraingo prismatik begiratuta, ez dute ulertzen nola onartu zuten. Kulpa senti-mendu hori badago. Orain dela 20 urte indarkeria mota hau askoz ere normali-zatuago zegoen.

Indarkeria normalizatuta izateak eraman ote ditzake biktimak hainbeste isiltzera?

“”

Justizia beti doa gizartearen atzetik: kalean egiten dugun presioak aldatzen ditu gauzak

Salaketa ipini duenak, duela 20 urte ja-rri izan balu, berdin alde egin beharko zukeen Gernikatik, baina erreparazio posible gabe.

Erreparazioa prozesu pertsonala da, baina aldeko sententziak lagundu dezake?

Guk ulertzen duguna da, salaketa judi-ziala jartzea erabakitzen duenak ondo-rio judizialak espero dituela. Beraz, kasu honetan, aldeko sententziak lagun deza-ke erreparazioan.

Justizia sistema patriarkala dela salatu dugu mila aldiz, baina kasu honetan erasotzailearen kontra hitz egin du. Sare Feministaren balorazioa aldatu egin du horrek?

Erasotzaile bat kaleetatik aldentzea bermea da beste emakume guztiontzat, jakina; baina justizia feminista mahai gainean jarri behar dugu berehala. Sen-tentzian Gernikako sare feminista aipatzen da: epaileak dioenez,

gu ez gara inor esateko justi-zia sistemak ez dituela emakumeak babesten. Zer nahi dute esatea? Egune-ro entzuten ditugu epai-leek emakume bortxatuei egiten dizkieten galderak, erasotzaileen aldeko sen-tentziak...

Zuek uste duzue gizartearen zati batek behar izan duela sententzia hau biktimari erabat sinesteko?

Bai. Eskaera fiskala publiko egin zen eguna ere garrantzitsua izan zen zuen lanaren sinesgarritasunari dagokionez. Jendeak esan zuen, “hemen zerbait po-toloa gertatu da. Fiskalak hamahiru urte eskatu ditu”. Fiskalaren eskaerak ekarri zuen jendeak ikustea gertatu dena la-

Ezagutzaren aldeko apustu pertsonalak kolektibo osoari eragiten dio.



U

I

K



UDA IKASTAROAK

CURSOS DE VERANO

SUMMER COURSES

UPV/EHU

UIK.EUS

UDA IKASTAROAK

EZAGUTZAREN ALDE

MATRIKULA ZABALIK

rria izan dela, eta sententziak larritasun hori berretsi egin du. Bitartean, ez pen-tsa, zurrumurru mingarriak ibili dira herrian: biktimarentzat maitasun plato-nikoa izan zela López, kontsentimendua egon zela...

Halakoak gertatzen direnean erasotzaileak beti lortzen du babesa parte den erakunde horretatik, eta kasu honetan ere, askotan salatu duzue Lointekek babestu egin zuela López.

Guk talde osoaz hitz egiten genuen Lointek izena erabilita, baina bazkideek esan ziguten kluba zuzendaritza baino gehiago dela. Hor traizioa zuzendaritza talde konkretu batekin egin zuen. Kluba hamabi juntakide horiek baino askoz ere gehiago da, baina kluba ez apurtzearen izenean, isilik daude asko. 2024ko urtarrilaren 14ko bazkideen batzarra klabea izan zen. Zuzendaritza taldea eskema itxi batekin joan zen batzarrerara, eta hurrengo egunean, titularrek esan zuten bazkide guztien babesa zeukala zuzendaritza horrek, baina ez zen egia. Hasieran guri leporatu ziguten kluba apurtuko genuela, eta gero bazkideei. Eta bazkide askok isiltzea erabaki zuten.

Erasoa jasandako guztiek ez dute gertatu zaiena publiko egitea erabakitzen, eta zilegi da. Ze puntutaraino da garrantzitsua erasoak publikoki salatzea?

Publiko egitea ahots-gora esatea da, eta hori beti egin behar da norbere beharren arabera, bakoitzaren erreparazioaren parte da. Askotan, erasoa jasandakoak ez daki gertatu zaiona definitzen ere. Kontu hartze ariketa bat egin behar da, eta ez da erraza. Umeez ari garela, ezin dugu ahaztu umeak ume direla, eta zein den haien kontzientzia maila. Helduok ardura daukagu gai honekiko. Nik orain dela urte bitik hona ardura sentitzen dut. Ez nago parkean jendea espiatzen, baina erantzukizuna daukadalada sentitzen dut. Eraso sexuala bera, definizio oso itxi batetik ireki egin da, eta orain, hainbat testigantza eskertu, ez dugu bakarrik sarketa hartzen bortxaketatzat. Beraz, publiko egiteak bai, badauka garrantzia.

Gernikako Udalaren iritziz ofiziala faltan hartu duzue?

Gernika-Lumoko Udala egoera politiko kuriosoan dago, baina gaur egungo udalbatzarreko kide bi Lointekek zu-

zendaritza kide izan ziren 2022ra arte. Ez dakigu horrek eragin duen isiltasuna, baina guk aurkeztutako azken mozioaren eztabaidan EAJren eta Gorroñoren udal taldeek esan zuten jendea asko sufritzen ari zela gai honekin. Inplizituki nahikoa dela esaten ari zitzaizkigun. Nortzuk dira EAJren eta Gorroñoren [José María] alderdiaren ustez hainbeste sufritu dutenak? Agian sufrimendu hori arintzeko zerbaitekin egin dezakegu guztiok, baina kezka sortzen dit arindu nahi duten sufrimendua zein den pentsatzeak.

Zuek lanean hasi zinetenean ez zenekiten biktima nor den ere. Urte bi hauetan prozesu itzela bizi izan duzue. Orain perspektibaz begiratuta, badago desberdin egingo zenuketen ezer?

Hasieran inozenteegiak izan ginen.

Zuek zintzotasunez joan zineten klubarengana, baina haiek “anaia” babestu zuten. Hori ez da anaidiaren ohiko funtzionamendua?

Gure kezkarik handiena zen, halako salaketa bat egonda, gizon horrek hor jarraitzea, eta umeak dauden udako campus batera lasai joatea. Klubak esan zigun lasai egoteko, campusa hurrengo egunean amaituko zela. Ez genuen lortzen iritsi nahi genuen lekuetara iristea, harik eta jokalaria bat gurekin harremanetan jarri zen arte. Orduan jakin genuen zuzendaritza jokalaria batzuekin batu zela eta salaketa faltsu bat dagoela esan ziela, eta López ez zutela bidali haien erabakiz, jokalaria bat errebelatu zitzaielako baino. Gero, gainera, prentsan irakurri genuen kirol zuzendari izendatu zutela. Orduan jakin genuenez, aurretik ere protesta egin zuen jokariak esan zien bulegoetan ere ez duela gizon hori nahi, eta badoala klubetik. Zuzendaritzak mehatxu egin zion kontratua ez betetzeagatik salatzea nahi ez bazuen, irteerako komunikatua adostu behar zuela. Begira kluba zertan ari zen, eta gu hain xalo.

Gernikako jaietako erasoen protokoloa diseinatu zenuten eta urteak daramatzazue jaietan erasoak artatzen, baina hau beste zerbaitekin izan da, ezta?

Momentuan gertatzen den erasoaren kudeaketak ez du zerikusirik urteetara salatzen denarekin. Momentuan agian inpaktu emozionala daukazu, konten-

tzio lanak egin behar dira, berba ego-kiak asmatzea garrantzitsua da... eta artatze hori amaitu egingo da jaiekin batera. Lópezen kontrako kasu honetan, oster, urte bi egin ditugu erasoaren trauma bat da eta inplikazio emozionala eskatu digu.

Ikasketa prozesu bat izan da?

Bai, eta bide batez, balioan jartzekoak dira aurkitutako aliatuak: kazetariak, adibidez.

Kazetariak buruz ari zarela. Zainduta sentitu zarete zuek eta biktima zaindu dutela sentitu duzue?

Medio batzuen partetik oso. Guk etxekotzat ez genituen medioak ere aliatu izan ditugu. *Berria*-ko kasua aipatu nahi nuke, ze kazetari bat baino gehiagorekin ibili gara, eta tratua zoragarria izan da: bai eman diguten lekuagatik eta bai erabili duten hizkuntzagatik.

Agian, kazetariengandik lortutako tratuak zerikusia dauka feminismoak azken urteetan egin duen bidearekin?


Bai. Emakume batzuek gauzak aldatzeko determinazioa hartu dugu, eta kasu konkretu honetan, guk, gertatzen dena gertatzen dela, azkenera arte jarraitzeko determinazioa hartu genuen.

Beldurrik izan duzue sententzia erasotzailearen alde ateraz gero, eraikitako babesa eror zedin?

Geure buruari mila bider errepikatu diogu sententzia ez dela inportantea eta, azkenean, sinetsi egin dugu. Eztabaida politikoa judizializatzen ari gara, eta bagenekien kasu honetan ere epaitegieta-ko prozesuak baldintzatu egin zezakeela guztia: fiskalaren eskaera handia bada zerbaitegatik izango delako, sententzia gogorrik ez badago hainbesterako ez zelako... horri ez begiratzen saiatu gara. Justizia beti doa gizartearen atzetik: kalean egiten dugun presioak aldatzen ditu gauzak.

Hemendik aurrera zer?

Oraindik ez dugu gure burua kokatu. Hau ez da amaitu, eta ez errekurtsioa sartu dutelako. Hau ez da amaitu erreparazioa egiteko dagoelako. Eta gero, guk erabaki egin behar dugu nondik jarraitu lanean. Bide batez, uste dut klubeko zuzendaritzak zerbaitekin daukala herriari esateko, eta isilik jarraitzen du. ●



Iritziak

Nazioaren pendulua, han eta hemen



IKER IRAOLA ARRETXE
SOZIOLOGOA ETA EHU-KO
IRAKASLEA

Politikan, gizartean eragiteko nahia-
ren eta identitate zeinuetan sakon-
tzearen arteko tentsioa ekidinezina
da. Zabaltzearen eta norberaren ezauga-
rriak indartzearen arteko hartu-eman
politikaren adierazle baita. Bi arloak lor-
tu nahi izaten dira, eta elkarren artean
elikatzen dira, baina indarrak mugatuak
direnez, zein lehenetsi izaten da kontua.
Tentsio hori estaturik gabeko nazioe-
tan ere presente dago. Izen desberdinak
erabil daitezkeen arren, independen-
tismoen edota estaturik gabeko nazio-
nalismoen kasuan, hegemoniaren eta
nazioagintzaren arteko tentsioaz ari gara.

Nazio egitasmoa hegemoniko, nagusi,
bilakatzea, horretarako hainbat ezauga-
rri eta eskakizun lausotu beharko direla
jakitun, batetik; edo nazio egitasmoaren
zutabe nagusiak indartzea lehenestea,
bestetik. Mutur batetik bestera, abagune
historiko eta politikoaren arabera, na-
zioa ulertzeko diskurtsoaren penduluak
mugitzen dihardu.

Katalunian azken hamarkadan hege-
moniaren eta nazioagintzaren pendulu ho-
rrek mugimendu nabaria izan du. 2014ko
eta, batez ere, 2017ko galdeketen tes-
tuinguruan, Kataluniako independen-
tziaren aldeko mugimenduak hegemonia
helburu zuen prozesua garatu zuen. Bide
horretan, nazio egitasmoa demokrazia-
rekin ("botoa eman nahi dugu"), errepu-
blikanismoarekin eta aurrerabidearekin
lotu zen, Espainiako Erresumaren aur-
kakotasuna eta itxikeria parean izanik.
2017aren osteko errepresioaren area-

Migratzaile
independentisten
elkarteez baino,
gehiago hitz egiten da
immigrazioak kultura
eta identitate nazional
katalanarengan duen
balizko eraginaz

gotzeak, unionismoaren erreakzioak eta
independentisten beraien arteko zatike-
tak eta noraezak, baina, egoera berri bati
eman dio lekua. Hegemoniaren bilaketak
ezinbesteko duen lausotzea eta irekiera
baino, nazio ezaugarrien defentsa gailen-
du da azken urteetan. Horren erakusga-
rri, hizkuntza katalanari buruzko ardura
sozialaren areagotzea, Katalunian batez
ere gazteen hizkuntza-erabileran zentra-
tuta; edota immigrazioari buruzko dis-
kurtso mesfidatia indartzea. Gaur egun,
migratzaile independentisten edota es-
painiar jatorriko herritar independentis-
ten elkarteez baino, gehiago hitz egiten
da immigrazioak kultura eta identitate
nazional katalanarengan duen balizko
eraginaz.

Kataluniatik iritsitako uhinak oso ga-
rrantzitsuak izan dira gurean azken ha-
markadan. Antzekoa gertatzen da Kata-
luniako azkenaldiko joerekin ere, maila
apalagoan bada ere; eta lurraldearen
arabera joera desberdinak izanda. Ba-
tetik, Hego Euskal Herrian Kataluniaren
gertuagoko egoera bizi dugu, berdina
izan gabe. Hemen ere eremu batzuetan
nazioari buruzko diskurtsoa gailendu
zaio hegemoniaren bilaketari (nazio
bulkadari buruzko ardura, adibidez).
Ipar Euskal Herrian, aitzitik, esango
nuke bestelako joera bizi dela, Katalu-
niakoaren nahiko desberdina. Bertan,
abertzaletasunaren egituraketa, herri
mugimendu berrien eragin soziala, lu-
rraldearen erakundetze xume berriak
sortutako abagunea eta abar joera ho-
rren lekuko dira, nire ustez.

Hegemoniaren eta gotortzearen arte-
ko lehia bereziki konplexua da estaturik
gabeko nazioen kasuan. Hegemoniaren
logikan normaltasun berria eraiki nahi
du independentismoak eta horretarako
batzuetan bere ezaugarri batzuk leun-
du behar ditu. Zeintzuk eta noraino, or-
dea, ez dago batere argi. Gainera, auzia
ez da bi nazio egitasmoren arteko lehia
garbi eta arrazionala, indar harreman
desorekatua duten bi aurkariren arteko
norgehiagoka baizik. Bi egitasmoetako
batek ez baitu estaturik eta, beraz, egun-
go normaltasuna aurka duelako. Horrek
eragiten du pendulua mugitu behar iza-
tea, baina aurrerago ere beste norabide
bat hartuko duela ahaztu gabe. ●

Pedagogismoa



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

Hezkuntzari buruzko eztabaidan, gutako batzuk erabiltzen ari garen neologismoa (uste dut horrela deitu ahal diogula) da *pedagogismoa*, agian azalpenik behar duena. Asmoa da pedagogiari aukera bat ematea, bi gauzak bereizita. Zientifizismoa eta zientziaren arteko bereizketan gertatzen den bezalaxe, pedagogismoa pedagogiaren gehiegikeria litzateke, hura bihurritzea eta desitxuratzea, alegia. Zoritxarrez, pedagogiaren alde bat sarritan pedagogismorantz irristatzen da. Ikus dezagun.

Pedagogiak hezkuntzaz dihardu. Hezkuntza gizarte orotan dagoen gertakaria da, baina, zertan den zehazteko orduan, gurutzatu egiten dira, ezinbestean, izan behar duenari buruzko gure uste erdi ustelak. Ondorioz, ez da erraza definizio bat adostea: hezkuntzaren deskribapen eta balorazio oso bestelakoak eta, are, kontrajarriak daude.

Hominizazioaren bide luzean, tresnak fabrikatzeko gaitasunak garrantzi handia izan zuen. Objektuak (harri, adar, hezur zakarra) erabiltzeko gaitasunetik haratago, horiek moldatzeko eta lantzeko ahalmenaz ari naiz, tresna berriak eta eraginkorragoak sortzekoaz. Eta nahita egitea, modu kontzientean eta planifikatuan, aurrez ezarritako ereduak jarraiki. Eredu horiek gurasoengandik

seme-alabengana transmititu eta denboraren poderioz hobetzen joan ziren. Ezagutzaren transmisioa den heinean (kasu honetan, ezagutza teknikoak, trebeziak) hezkuntza oso antzinakoa da, beraz. Arrazoizkoa da pentsatzea baliokak transmititu eta bizikidetzat hartzearen aldetik ere aspaldikoa dela. Badirudi hezkuntza artikulatuaren lehen hitzetako bat "ez" izan zitekeela, hain zuzen, kume gizatiarren gizarteratze-eta heziketa-testuinguruekin lotuta (*ez zaitez horra igo, ez ezazu hori jan, ez jo arrebari...* Zorioneko mugak!).

Jakintza-transmisioak mami nahikoa hartu zuenean, hausnarketa-objektu bihurtu zen berez. Platonen aburuz, adibidez, berak sofistei egozten dienaren kontra, hezkuntza, eta horren barruan berariaz irakaskuntza, ez datza edukiak ontzi huts batean sartzean (ikasleen buruetan), baizik eta barruan daramatena ateratzen laguntzean (Sokrates bere maisuak esaten zuenez) edo begirada norabide egokira bideratzen laguntzean, baliotsua eta egiazkoa ikusi eta ikasi ahal izateko. Ez dakit pedagogia ote den, baina hor badago hezkuntzaren filosofia hasiberri bat. Kultura-transmisioa nola gertatzen den aztertu duten hainbat ikuspegi izan dira historian zehar, baina XIX. mendera arte ez zen

pedagogia jakintza-adar autonomo gisa agertu.

Inurrietan espezializatutako biologo batek egiten duen eran (intsektuak behatu eta haien jarduteko moduak, bi-zi-zikloa eta abar zehatz-mehatz deskribatzen baititu), pentsa liteke pedagogoa dedikatuko litzatekeela hezi, irakatsi eta ikasten dutenek egiten dutena behatzera –irakasten eta ikasten dugunean gertatzen denaz interesatuta–, gertaera horren barneko mekanismoak agerian ipini aldera, akaso. Baina, arrazoibide zirkular bitxi batean, pedagogiaren helburua da, hezkuntza deskribatu eta ezagutzeaz gain, hezkuntza sistema aldatzea eta hobetzea... pedagogiak berak ezarritako argibideei jarraituta (*Wikipedia dixit*).

Egia da, pedagogia diziplina normatiboa izanik, ezin dugula ulertu hezkuntzaren zientzia gisa, halakorik ezin baita egon, hitza gehiegi bortxatu ezean. Edonola ere, pedagogismoa metodologiaren etengabeko aldaketa eta berrikuntzarekin tematuta dago; bere webguneek dekorazio edo moda aldizkariaren itxura dute, denboraldi honetan zer jantziko den kontatzen baitigute. Pedagogismoak kalterik handiena pedagogiari berari egiten dio; eta hezkuntzari, jakina. Moden haize aldakor pean kokatzen ditu. ●

Aldia itzalaz erditu zenekoa



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Ustekabeen edo... urte hasiera honetan bi mila milioitik gorako irabaziak izan omen ditu Iberdrolak, baina ez omen dago txapliguak, altxafuegoak, etxaferuak... edo dena delakoak zerruetara botatzeko egoeran, izan ere, iazaldi berean baino %27 gutxiago irabazi omen du. Atalen batek ez du uste adinako errentagarritasunik, edo zergetan gehitxo ordaindu dute? Helburua iazko irabaziak ontzea izango zen eta guretzat ametsetako kopuruak (argi esateko, amestu ere ezin ditugunak) badira ere, seguru asko bazkideek eta akziodunek gutxi dela iritziko diotela; ez hori bakarrik, galdu egin dutela! Nekazaritza munduan, lurra emandakoa zaindiz dabilentzat eta beste askorentzat, galtzea ez da uste adina irabazi ez izatea. Galtzea galtzea da eta kitto!

Lehengo plaentxiarrarena: “–Zer moduz fabrikari, hasi al zarete burua altxatzen? –Baa, baziak xoxe hobetzen, torloju bakoitzarekin xentimo bat galtzen diagu, baina asko eginaren puruan, zerbait irabazi!”.

Badakit, zuekin batera bizi izan nuelako, itzalaldia benetan gertatu zela, baina nik ulertzeko moduan ez dut azalpenik irakurri ez entzun, galdu egin omen dira hamabost gigawatt argindar bost segundo eskasean. Itzalak argitu behar dituen, has dadila gu haurtzaroan bezala, “*San Antonio, bila-bila, bilatzen lagundu, bestela limosnarik ez dizut emango*”.

Bada ondorioztatu duenik energia berri-erregeneratzaileak ez direla gertatu denaren arriskua saihesteko lagunik onenak eta beste goi tentsioko linea bat edo gehiago eraiki beharra dagoela, horrelakorik gerta ez dadin. Energia nuklearra gaue-rik goizera energia berde bataiatu dute. Lehen, hainbeste arrisku zuelako, aurka bortitz batailatu genuen, baina... Zein energia mota ote da errentagarriena enpresa hauentzat? Lurtarrontzat arrisku-etsuena? Hurrengo aldiak itzala argitu eta ulertzekotan utzi beharko dut!

Ondoko berria, berriz, noiz eta maiz-erregeneratzaile 1ean *Berria*-n irakurri nuen: azken sei urteetan, enpresetako kontseilarien soldatak, batez beste, %50 igo omen dira eta langileenak epealdi berean %0,9. Azterketa hori egin duen Oxfam nazioarteko erakundeak 35 herrialde eta bi mila enpresa baino gehiagoko datuak arakatu omen ditu. Egia ote da? Eta zenbateko soldata dute bada kontseilari horiek? Hauke: 2024an, batez beste, 3,8 milioi euro. Ahuntzaren gauerdiko ez-utla! Kontseilari askoren kasuan, gainera, soldata baino saria deituta aproposago...

Argirik gabe itzalik ez, eta nago itzal-aldiak berekin ekarriko ote duen are eta goi tentsioko eztabaida gehiago, linea gehiago eraiki premia azpimarratuz, nekazarien lurra negozio iturri gisara baliatzeko. Zergak ordaintzea gure kontu, baina xoxak Iberdrola, REE eta abarren kontseilarien esku. ●

Bihotzeko pitzadurak



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Oliver Laxe-k esan zidan behin en-
patiari eustea dela zuzenena bizi-
tza honetan. Zauritutako jendeak
hunkitzen duela, eta jakin-min handia so-
rrarazten diola; eta hori dela, hain zuzen
ere, gehien gustatzen zaion gauzetako
bat: bere buruari galdetzea zergatik hun-
kitu duen horri buruz, pertsona horiek
psikologikoki eta espiritualki aztertzea,
haien zauriak aztertzea. Jende hautsiak
erakartzen zuela aitortu zidan, bihotzeko
pitzaduretatik argia pasatzen delako eta
polita delako haien baitan sortzen den

eztabaida. Kontatu zidan Parisen jaio
zela, gurasoak Galiziatik joan zirelako
hara, eta ikasturte batean eskolaz alda-
tu zutela, eskola espainiar batera, eta
ez zuenez ezer ulertzen izugarri sufritu
zuela. Frantzia etorkina zela eta Gali-
zia frantsesa. Federico García Lorca zen
eskolaren izena, deigarria egin zitzaidan
izena. Ankerra da bizitza batzuetan. Su-
fritu ez dezagun nahi dute maite gaituz-
tenek, baina haien erabakiekin min ema-
ten digute usu. Izan ere, minez daudenek
ingurukoak zauritzen dituzte maiz. ●

Borrokak lotu nahian



NEKANE TXAPARTEGI
KAZETARI FEMINISTA

Bisita, bizipen eta hausnarketa egunak izan ditut maiatzekoak. Hor nabil, interseksionalitatea nola gauzatu, borrokak lotu nahian.

Lan egiten dudana LoRa irrati komunitariotik, Maiatzaren 1erako adierazpen askatasunari buruzko mahai ingurua antolatu genuen Palestina, Filipina eta Kurdistaneko kazetariekin. Nik, besteak beste, Euskal Herriko medioen itxiera eta jazarpen politikoa kontatu nituen. Beste behin harridura, inork gutxi baitaki Euskal Herrian inposatu eta nazioartean zabaldutako diskurtsoa nola eraiki duten. Publikotik ziurtzat jotzen dute beste herrialde horietan jazarpena dagoela, baina Europan? Kolonizazioa, asimilazio politikak, okupazioa, militarizazioa, tortura... itsasoz bestaldetik hasiko balira bezala. Berrirori ere ziurtapena: kolonien narratibak dirau.

Hamabosgarren feminizidioa Suitzan. *Ni una menos* taldeko txata. Salaketa egiteaz gain, autodefentsa feminista ikastaroa egingo dugu. Izen horrekin bataiatutako plazan argazkiak eta testuak zintzilikatuko ditugu. Azkenaldian gutxi irauten dute, gure ustez neo-nazi taldeek kentzen dituzte.

Aldi berean, 30 urte ihesita egon ostean, Venezuelatik bueltatu berri dira

Daviden izarra duten pegatina mugagabeak aurki daitezke kale eta tabernatan; ezker autonomoko bilgune sozialetan, berriz, "kufiya palestinarra" eramatea gaizki ikusia edo debekatua da

K.O.M.I.T.E.E Alemaniako antolakunde klandestinoko bi kide. Afari baten bueltan kontatu ziguten egunkariak normalizatzen dituzten diskurtsoen atzeko ezker mugimenduko drama. Ez dira berriak Alemanian Ekialde Hurbileko gaiak ezkerrean sortzen dituen kontrasteak. Azken urte eta hilabeteetan, ordea, Antideutsche deiturikoen jarrera ulertezina bilakatu da eta mugimendu osoa lehertu eta zatikatu dute, antifatik queerfeminismoraino.

Antideutscheek Israelen existentzia onartzen eta babesten dute, beren burua judutarren zaintzaile izendatuta. Zor

moral horrek ekartzen dituen ondorioak ignoratu, eta Israelen existentzia dudan jartzen duen oro antisemitatzat dute. Daviden izarra duten pegatina mugagabeak aurki daitezke kale eta tabernatan; ezker autonomoko bilgune sozialetan, berriz, "kufiya palestinarra" eramatea gaizki ikusia edo debekatua da. Borroka nola lotu gogoetatzeko nabilen bitartean, beste batzuek ez dute arazorik antifaxismoa eta proiektu kolonial bat bateratzeko.

Artikulua borobildu nahian, buruari kea darion bitartean, Iratxe Sorzabalen tortura aitortpenaren berri jaso dut. Emozio pila sortu dizkit, aurreko gogoe-tatik atera arazi. Bagenekiena, ozen esan eta salatu duguna, onartzeko pausoa eman du epaitegi espainiar batek. Beraz, bere amaz, alabaz, ingurukoez, espetxe-ko kideez, torturatuez eta bereziki emakume torturatu guztiez gogoratu naiz. Baita Iratxek idatzitako hitzez ere:

Biluztu zintuzten, biluztu ninduten/Jipoitu zintuzten, jipoitu ninduten/Bortxatu zintuzten, bortxatu ninduten/Elektrodoekin erre ziguten gorputz azala/Plastikozko poltsa batekin irato gintuzten/Baina bizirik gaude eta aske gara/Aitortu zaituzte. Aitortu naute. Aitortu gaituzte. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK , OSPAIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com



ARGIA

BABESTEKO



ARRAZOI

1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langileona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdirena.

2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

3. HEDABIDE DIGITALA ETA PADEREKO

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIA jendartea eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugariarekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorrotan.

9. 100 URTETIK GORA

Ilbilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

TXIKITIK ERAGITEN argia.eus/eginargiakoa



Bai, konpondu daitezke gatazkak komunitatea indartuz eta arrazakeria elikatu gabe

Urte hasieran, Saidek Kutxabanken lokal abandonatu bateko giltzak erosi zituen 600 euroan, beste bi lagunekin batera, Gasteizko Judimendi auzoan. Hilabete zeraman kalean bizitzen. Hasiera batean ez zuten arazorik izan, baina lokalera jende berria heldu ahal gatazkak eta elkarbizitza arazoak sortu ziren, haien artean eta baita on-

doko atariko bizilagunekin ere, egotira larriren bat tartean. Gatazka horiei modu komunitarioan eta elkarrekiko enpatiaz egin diete aurre bizilagunek eta auzoko eragile sozialek. Bizitakoa azaldu digute Mohamed Said lokaletako bizilagunak, Juncal Ruiz atariko bizilagunak, eta Batuta Judimendiko elkartasun sareko kide Mikel Susok.

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Gasteizera lehenbizikoz 2015ean heldu zen Said, 21 urte zituela. Ez da bere egiazko izena, argazkietan ez agertzea ere nahiagodu: “Lana lortzeko arazoa izan daiteke”, azaldu du. “Heldu nintzenean ilea nuen”, dio umorez, bekokiko soilguneak erakutsiz. Familiarekin etorri zen, ikasi eta lan egiteko asmoz. “Hiru titulu dauzkat, autoen karrozeria konpontzekoa, pladurra muntatzekoa eta pinturakoa”. Denbora batera Marokora bueltatu zen familia osoa, eta pandemia ostean bera bakarrik itzuli zen Euskal Herrira. Urte horietan guztietan hainbat etxebizitzatan bizi izan da, beti alokairuan.

Duela hilabete batzuk Said teilaturik gabe geratu zen, bizi zen etxearen jabeak hura saltzea erabaki zuelako. Enplegurik gabe zegoen une horretan. Bi egoeren

batuketak kale gorrian utzi zuen, negu betean. Hilabetera, lagun batekin eta hirugarren pertsona batekin batera Kutxabanken egoitza ohi bat ‘erosi’ zuten, Judimendi auzoko Santiago etorbidean. 600 euro ordaindu zituzten giltzaren truk. “Nire asmoa zen pisu bat aurkitu eta han denbora gutxi ematea. Saldu zingunak esan zigun bera bertan bizi zela ordura arte, ohe eta guzti. Bagenekien ez zela legezkoa, baina uste genuen arazorik suertatuz gero aurpegia emango zuela”.

Hasiera batean ez zuten inongo arazorik izan, Saidek gogoratu duenez. “Oso garbi genuen dena, su txiki bat ekarri genuen kozinatzeko, ez genuen zaratarik egiten, Polizia ez zen etorri eta ez zen bizilagunen kexarik egon”. Polizia, lehenbizikoz, hilabete batera agertu zen, okupazio delituagatik bertan bizi zire-

nak identifikatzera. “Orduan jakin zuten auzokide batzuek hor ginela”. Okupazioagatik epaiketa izan dute Saidek eta lagunak.

JENDE GEHIAGO, ARAZO GEHIAGO

Saiden lagunak bi pertsona gonbidatu zituen lokalean bizitzera. Zaratak areagotu ziren, eta haien arteko gatazkak piztu ziren. “Zenbat eta jende gehiago, orduan eta arazo handiagoak”, azaldu du Saidek. Garai hartan hasi ziren lokal ondoko atariko lehen solairuko bizilagunaren kexak, zarata eta usainengatik. “Atariko gainontzekook ez genuen arazorik ez zitzaigulako ezer heltzen, ni adibidez laugarren solairuan bizi naiz”, dio atarian bizi den Ruizek.

Kexu zen bizilagunak telefonoa hartu zuen konponbide bila. Auzo elkartera



DOS POR DOS

Juncal Ruiz atariko bizilaguna eta Mikel Suso Judimendi auzoko Batuta sareko kidea. Haiekin batera solasaldian parte hartu zuen Mohamed Said lokaleko bizilaguna ez dago aragazkian, berak horrela eskatuta: Lana lortzeko arazoa izan daiteke.

deitu zuen, ez Poliziara. Auzo elkarte, bere aldetik, Batuta Judimendiko elkartasun sarearekin jarri zen harremanetan, ez Poliziarekin. Sare horretako kide da Mikel Suso. Auzo elkartearen deia jaso zuenerako Gasteizko auzoetako hainbat pertsona eta mugimendu biltzen hasiak ziren, hiri osoan errepikatzen ari diren antzeko egoerei nola erantzun pentsatzeko (maiatzean aurkeztekoak diren Gasteiz Anitza ekimena da lan horren azken fruitua).

ATEAK JO

Zentzuzkoena ateak jotzea zela erabaki zuten Batutako kideek: auzo elkartera deitu zuen bizilagunaren atea, eta lokaleko bizilagunena. “Gure ikuspuntua da auzoan bizi dena auzokidea dela, edo-

Kexu zen bizilagunak auzo elkartera deitu zuen konponbide bila, ez Poliziara. Auzo elkarte Batuta Judimendiko elkartasun sarearekin jarri zen harremanetan, ez Poliziarekin

zein balditzetan bizi dela ere; eta auzo-kideon arazoak denon arazoak direla”, azaldu du Susok.

“Lehen aldi hartan Maialen eta biok joan ginen, zuek ezagutzera, ea lagun-

tzarik behar zenuten galdetzera, ondoko tabernara joan ginen kafe bat hartzera”, oroitu du Susok Saidi begira; “Horrela izan beharko lukete gauzak, horretarako [lokalean bizi ziren] gazteek bizilagunak errespetatu behar dituzte”, gehitu du Saidek; “Errespetuz denok jokatu behar dugu elkarren artean”, Ruizek. Bisitareen asmoa bitartekari lana egitea ere bazen: “Jakinarazi genizuen goiko bizilaguna kexu zela”. Zarataz eta ordutegiez hitz egin zuten, janari eta ke usainak ekiditeko lokalaren zein espazioetan ez kozinatu edo erre pentsatu zuten...

Auzoko saretik hiru laguntza mota eskaini zieten lokaleko bizilagunei. Bate-tik, materiala, bereziki argirik gabe utzi zituztenean: arropak, mantak eta beste lortu zituzten auzoko WhatsApp taldetik

eskatuta. Bigarrenik, gizarte zerbitzuetara lagundu zituzten. “Laguntza gutxi eman dute”, dio Susok erakundeez, “bizilagunak laguntzen saiatzen gara, baina haien ardura konponbideak ematea da, eta ez dira egiten ari”. Hirugarrenik, bestelako modu eta espazio informalekoetan Said eta lagunei tokia egiten saiatu dira: noizbehinka kafe bat hartu edo telefonoz hitz egin, futbol partidu bat jolastera gonbidatu... “Ondo dago bertako jendearekin harremana izatea, ezagutzea, nola pentsatzen eta bizi diren jakitea”, dio Saidek.

“Dena den, guk maila berean jartzen dugu lokalean bizi zirenekin eta lehen

solairuko bizilagunarekin egin genuen akonpainamendu eta bitartekaritza lana”, azpimarratu du Susok. “Hor, garrantzitsuena da transmititzen dizuna balidatzea, entzutea eta ulertzen saiatzea, bakoitzak bere modura bizi duelako edozein egoera. Gero hori transmititu ahal izateko, eta posturak hurbiltzen saiatzeko”, azaldu du. Intentsitate handiagoko eta txikiagoko uneak egon dira akonpainamendu horretan, “baina ez larriak”. Elkarri aurpegia jartze hutsak bario handia duela diote hiru solaskideek.

Bitartekaritzak fruituak eman zituen hasiera batean, zaratak eta usainak murriztu ziren, eta kexu zen bizilaguna jada

ez zen horren kexu. Baina lokalera pertsona berriak heltzen jarraitu zuten, hamar ere izatera heldu ziren, adin, asmo eta egoera ezberdinetan zeudenak. Hamarretik bik soilik zuten diru-sarreraren bat, desgaitasunengatik: “Bat itsu egoteagatik, besteak buruan egin zioten ebakuntza baten ondorioz”, zehaztu du Saidek. Paperik gabeko hiru gazte ere baziren, “pasaporterik ere ez zuten”.

Haien arteko gatazkak eta lehen solairuko bizilagunaren kexak areagotu egin ziren berriz ere. “Batek lo egin nahi du, beste batek musika entzun; batek atsedena hartu, beste batek parranda egin; batekin hitz egiten baduzu, beste bederatzi geratzen zaizkizu”, laburbildu du egoera Saidek. “Gu lau gara etxean, nahi dugulako bizi gara elkarrekin, eta halere gatazkak ditugu, pentsa hamar ezezagunekin sartzen banaute”, hausnartu du Ruizek.

Testuinguru hartan, Kutxabankek lokaleko argia eta ura moztu zituen, eta bertako bizilagunek sorgailu bat sartu zuten elektrizitatea eta beroa lortzeko.

ARRISKU EGOERAN ERE, ENPATIAZ

Ostailaren 14ko gauean, atariko bizilagun batek usain arraroa eta sorgailuaren zarata sumatu zituen lanetik etxera bueltatzean. Larrituta, suhiltzaileak deitu zituen. Karbono monoxidoa zen bizilagunak usaindutakoa, eta eraikinean pilatzen ari zen, nagusiki lokalean baina baita gaineko etxebizitzetan ere. “Deitu ez balie, hildakoak egongo lirateke gau hartan, bereziki beheko solairuetako bizilagunen artean”, ziurtatu du Ruizek. Laugarren solairuan bizi da bera, eta gau hartan goiz oheratu zen buruko min handiarekin, “uste dut monoxidoaren ondorioa izan zela”. Suhiltzaileak bizilagunak desalojatzeko zorian egon ziren, baina azkenean eraikineko leiho guztiak ireki eta aireztatzea nahikoa izan zen.

Ordura arte lokaleko eta lehen solairuko bizilagunen arteko elkarbizitza arazoa zenak beste dimentsio bat hartu zuen: batetik, arazoa atariko pertsona guztiena bihurtu zen eta, bestetik, segurtasun mailakoa. “Sentimendua izan zen, ostia, ez gaude seguru, beldurra”, laburbildu du Ruizek. Sentimendu horiek areagotu egin ziren hurrengo egunetan. Semeak Ruizi ohartarazi zion lokaletik gasolina usaina ateratzen zela, eta honek 112ra deitu zuen. “Ez zen ezer, isuri txikiren bat edo izango zuten”, dio Ruizek, baina beste behin



Lehen planoan Mohamed Saiden eskuak, eta sakonean Mikel Suso bere esanak aditzen.



Martxoaren 24an agerraldia egin zuen Gasteiz Anitza ekimenak, erreportaje honetan sakon jaso dugun prozesuaren zertzelada nagusiak azaltzeko. Maiatzaren 31n egingo dute ekimen komunitarioaren aurkezpen ofiziala.

“Sentimendua izan zen, ostia, ez gaude seguru, beldurra”

Juncal Ruiz

Bizilaguna

bertaratu ziren suhiltzaileak eta Polizia. Handik gutxira, elektrizitatea *pintxatzen* saiatu ziren lokaletik, eta atari guztia utzi zuten argindarrrik gabe.

Beldur eta haserre testuinguru emozional hartan egin zuten atariko bilera hamasei bizilagunek, Ruizek berak deituta. “Gorrito diskurtsoak esatea igual gehiegi da, baina gustuko ez dituzun gauzak bai entzuten dituzu horrelako egoera batean, asko gara eta nork bere iritzia du”. Nolanahi ere, lortu zuten ikuspuntu komun batera heltzea: “Pertsona hauek ez daude hemen nahi dutelako, ezta gu izorratzeko asmoz ere. Izorratu gaituena lokalaren jabea da, argia aldebakartasunez moztu duenean. Bai, arazo bat dago, baina arazoa ez da sortu behean jende bat bizitzen egoteagatik, baizik eta horien aurka hartu dituzten neurrien-gatik”, laburbildu du Ruizek. Ikuspuntu horren arabera jokatzeari adostu zuten. “Egon ziren beste jarrera batzuk defendatzen zituzten bizilagunak, baina onartu zuten alde batera egitea pixka bat, eta trabarik ez jartzea”.

Bizilagunek, batetik, Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken, Gazteriaren, Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Batzordean hitza eskatu zuten. Martxoaren 24an, udal gobernuari eta gainontzeko talde politikoei konponbideak eskatu zizkieten: atariko bizilagunentzako, lokalean bizi zirenentzako, eta antzeko egoeran aurkitzen diren gasteiztar guztientzako. Batzordean bertan aitortza eta esker oneko hitzak entzun zituztela gogoratu du Ruizek, baina ondoren bere eskaeren inguruko erantzunik ez dute jaso. Bestetik, ordurako auzoko hainbat eragileren artean –Batuta, Gazte Asanblada, auzo elkarteak...– sortua zuten lantaldearekin batu ziren, ordura arteko bide komunitarioari segida emateko.

GATAZKA HURBILAK, ISPILU ETA AUKERA

Arazoek edo egoerek ispiluren aurrean jartzen gaituzte pertsonalki eragiten ditugutenean, eta kristalak ezusteko irudia bueltatzen du maiz, batzuetan onerako, bestetan okerrerako. “Hori bizitzea tokatu zait. Harritzea, txarrerako, zenbait jenderen ahotik entzuten duzunarekin, teorian beste balore batzuk dituela ematen duenean. Eta alderantzizkoa ere bai. Diskurtso politikorik egiten ez duten eta horrelako egoera bat beldur gehiagorekin bizi dezaketen pertsona nagusiei entzutea, adibidez, ‘beno, ea gazte hauek laguntza lortzen duten...’”.

Zentzu horretan, atariko komunitatearen erantzuna goraitatu du Susok:

Eragile berria: Gasteiz Anitza

“Harrera sareak, mugimendu feministako kideak, auzo elkar-teak, zaintza sareak, etxebizitzaren problematika lantzen dugun eragileak, politika migratzaileak salatzen ditugunak, antifaxistak, arrazakeriaren aurkakoak, errolda eskubidea pertsona guztientzat aldarrikatzen dugunak, gure komunitateak eta auzoak maite eta bizi ditugunak gara”. Horrela aurkeztu zuen bere burua Gasteiz Anitza ekimenak martxoaren 24an eman zuen prentsaurrekoan. Agerraldiaren asmo nagusia, hain zuzen ere, erreportaje honetan sakon ezagutu dugun prozesu komunitarioaren zertzelada nagusiak ematea izan zen.

“Egoera zaurgarrian dauden pertsonetako diskurtso bazter-tzaileak ohikoak bihurtu dira gure inguruan”, ohartarazi zuten, eta alternatibak garatzeko asmoa agertu, “egoera larrien aurrean soilik Poliziaren esku hartze gehiago eskatzen duen eta eskubideen urraketei entzungor egiten dion ereduaren aurrean”.

Gasteizko hainbat auzotan errepikatzen ari diren arazoak “auzo elkartasun eta perspektiba integratzaile batetik lantzeko beharra” azpimarratu zuten, “non auzokideok ondoan ditugun auzokideengatik kezkatzen garen, kriminalizatu gabe eta ditugun elkarbizitza beharrei eta arazoei helduz. Auzokideen inplikazioa bilatzen dugu auzokideen arazoen konponbidean”.

Maiatzaren 31n ekimenaren aurkezpen ofiziala egingo dute, eta helburu horietan pausoak emateko adostu dituzten erreminta eta ekimen zehatzak aurkeztuko dituzte.



IRUTXULOKO HITZA

Gasteizen bezala Euskal Herri osoko hainbat hiri eta herritan errepikatzen ari dira azken urteotan bazterkeria eta kale egoeran dauden personeren aurkako jarrerak zein aldeko ekimenak.

“Egoera oso emozionala da: arazoak daude, kalteak, beldurra... Balorea eman behar zaio egoera hartan erantzun hori emateari, errazena lokalekoen aurka egitea zelako”. Pentsakor geratu da Ruiz segundo batzuez, hariari segida eman aurretik: “Une horretan garrantzitsua da hausnartzea: non nago? Eta bai, pentsatzen dudana horretan mantentzen naiz, haiek ondoan izan aurretik pentsatzen nuen horretan”.

Azken hilabeteetan bizitakoak “hausnartzeko aukera” eman diola dio Ruizek. “Ez nire buruarekin soilik, baita semearekin ere, adibidez”. Semea “erabat izutu”

zen atari ondoko lokala okupatua zegoela jakin zuenean eta ez zuen kalera atera nahi jolastera, gertatu ahal zitzaionaren beldurrez. Beldur horiek eta oinarrian zeuden usteak jorratu zituen Ruizek berarekin. “Balio izan du hitz egiteko bestela hitz egingo ez genituzkeen gauza batzuei buruz. Eta pentsatzeko nondik jo nahi dugun: bale arazo bat dago, baina lasaitasunez heldu nahi diogu, eta modu eraikitzailean”.

ARAZO OROKORTUA

Asteak pasa dira ordutik, hilabeteak Said eta bere lagunak Kutxabankeko egoitza

ohiaren giltza erosi zutenetik. Egun ez dago ez elkarbizitza arazorik ez segurtasun mailakorik Santiago etorbideko bizilagunen artean. Solasaldian ari garen unean, pertsona bakarra bizi da lokalean. Saidek logela bat lortu zuen alokairuan, berarekin batera sartu ziren bi lagunak Belgikan eta Bartzelonan bizi dira. Besteren berririk ez du Saidek, baina oso litekeena da kalean edo bizitzeko baldintzarik ez duen beste edozein lokalean bizitzen egotea, Gasteizen bertan edo Laudion, Algortan, Donostian, Trintxerpen, Iruñean, Baionan...

Herri eta hiri horietan guztietan, eta

Ekonomia Sozial eta Solidarioa Unibertsitate Masterra

Izena emateko bigarren epealdia: maiatzak 26tik 30era

www.gezki.eus/masterra

eman ta zabil zazu



GEZKI

UPV/EHUko Gizarte
Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institutua

Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU



gehiagotan ere bai, antzeko errealitateak bizi dituzte hainbat bizilagunek, eta maiz gatazkak sortu dira haien artean. Gero eta ohikoagoak bilakatzen ari dira ka-lean edo abandonatutako lokaletan bizi diren pertsonen aurkako jarrerak: Polizia gehiago eta oldarkorragoa eskatu, auzotik edo herritik botatzea exijitu, aldarri arrazistak, baita eraso fisikoak ere. Mezu, jarrera eta gatazka horiei oihartzun handia ematen ari diete hainbat komunikabidek, Vocento taldea buru.

Aldi berean antolatuta dira ere herritar eta elkarteak gatazkei bestelako modu batean erantzun nahian. Baina ohartarazi ohi dute zailtasunak handiak direla, herri-gintzak erreminta falta nabarmena duela, eta bitartean arrazakeria eta eta eskuin muturraren mezuak indarra irabazten doazela ezker-eskuin. Arazoa biderkatu egin da azken urteotan, oinarrian pobrezia, arrazakeria eta bazterkeria daudelako, eta Euskal Herriaren zein munduaren bilakaera ikusita, pentsatzekoa da hazten jarraituko duela. "Zer ikasgai atera dezakegu Judimendi auzoko esperientziatik?", galdetu diegu solaskideei.

SAIATU, BADA AUKERARIK

Bada aukerarik gatazka hauei modu komunitario eta eraikitzailean heltzeko, horra lehen ikasgaia, Susoren esanetan. "Normalean auzokide gisa ez, arazo gisa ikusten ditugu baztertutako horiek, Polizian pentsatzen dugu irtenbide moduan... Hori da lehen kolpean datorkiguna, hori delako ezagutzen duguna". Ikuspegi eta praktika horiei buelta emateko auzokideen papera "erabakigarria" dela dio. Auzokideak pluralean, sarean. Judimendin aurretik ere baziren eragileak, baita sare formal zein informalak ere, eta horiek egin dute posible erantzuna komunitarioa izatea.

Saiatu beharra dago, hori bigarren lezioa. Erraza da esaten, ez hainbeste egiten. Ezjakintasuna, erreminta falta, beldurra, erosotasuna, gaindituta sentitzea, ziurgabetasuna, arrazakeria... faktore asko sartu daitezke jokoan. Lokalaren atea jotzea bera ez zitzaion erraza izan Batuta sareko kideei: beldur ziren ea nola hartuko zituzten eta zer aurkituko zuten eta, bestalde, ez zuten bertan bizi zirenen intimitatea urratu nahi. Atariko eta lokaleko auzokideen artean ez da kontaktu zuzenik egon deskribatu dugun prozesuan. "Ni tentatuta egon naiz hainbat aldiz atea jotzeko, baina hor, nahi edo ez jokoan sartzen dira aurreiritziak, estereotipoak: zer topatuko duzu? Zer dakizu? Eta jipoi bat ematen

"Galdetu nahi badidazu zer egiten dudan hemen lokalean, zer egoeran nagoen, nik azalduko dizut"

Mohamed Said

badizute? Eta ez dut atea jo. Damutu naiz? Bai", hausnartu du Ruizek. Eta, Saidek? Berak ere beldurra sentitu ote zuen atea jotzen zutela entzutean, Polizia edo herritar oldarkor bat izango zen beldurrez? "Ez, ikusten da pertsona bat zer asmorekin datorren, galdetu nahi badidazu zer egiten dudan hemen, zer egoeran nagoen, nik azalduko dizut".

Ugaltzen ari den errealitate batez ari gara, baina gatazken izaerak eta intentsitatea, eragile sozialen indarra, bizilagun batzuen zein besteen jarrerak... ezberdinak dira kasu eta toki bakoitzean. Judimendiko esperientzia baliagarria izan daiteke edozein testuingururako? Funtsean baietz uste dute solaskideek.

"Oinarria" bistatik ez galtzea eskatu du Saidek: "Zergatik gaude hemen? Lan egin nahi dugulako, gure bizitza hobetu nahi dugulako, ez inor izorratzeko edo kalterik egiteko. Inork ez du horrela bizi nahi. Nik txalet batean bizi nahi dut, dirua izan, jende guztiaren antzera". Bizilagunekiko errespetuz jokatzaren garrantzia azpimarratu du.

Judimendin bezala beste edozein tokitan "enpatia" da gakoa Ruizen ustez, "denon aldetik". Bitartekariaren figuraren garrantzia azpimarratu du, "batzuei eta besteei ulertaraziko diena ondokoak zer sentitzen duen eta zer behar dituen".

Beste bi gako gehitu ditu Susok: "Lehenik eta behin, lokal abandonatuetan bizi direnak ere auzokideak dira; bigarrenik, arazoak denonak dira". Konponbideak ere dira denonak, gehitu du jarraian: lokaletan bizi diren pertsonen egoerei konponbidea emanez gero, ez legoke gatazkarik haien artean eta gaintzeko bizilagunekin.

Susoren azken hitzekin bat egin dute Ruizek eta Saidek: "Ez dugu konponbidea eman, irtenbidea lortu dutenak beraie kabuz lortu dute; baina denon artean ekarpena egin dugu norabide on batean". ●



**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

Ametzagaina 17, behe / Donostia
943 005 680 aholku.eus



mitxelena Koop
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Ezlaio Industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus

BARATZEGINTZA AGROEKOLOGIKOA

lazko udako uzta txarretik bildutako irakaspenak

Uda da sasoirik oparoena baratzean. Bai, behintzat, udaberrian ereintza eta landaketa lanak egin badira. lazko uda ez dadila errepikatu desio dute elikagaiak lurrean eta zeruari begira lantzen dituzten laborariek. Izan ere, batez beste %45 uzta txikiagoa jaso zuten. Datu hori jaso du laborantza ekologikoaren aldeko Biolur elkarteak egin duen azterlanak. Gainera, uztarik okerrenak negurako gordetzen diren laboreetan jaso zituzten eta, beraz, urte osoko diru-sarreretan igarri dute jaitsiera. Baina, zergatik izan zen uzta hain eskasa? Zer ondorio ekarri ditu lehendik baldintza gogorretan irauten duten baratzezainen artean? Zer konponbide ari dira aztertzen etorkizunean horrelako egoerei hobe aurre egiteko?

 EITXU EIZAGIRRE KEREJETA

 DANI BLANCO

Bergarako Ziarreta baserrian elkar-tu gara bertako ekoizlea den Iñigo Gabilondo, Izurtzako Eskubaratz proiektuko ekoizlea den Nere Aspiazu eta Biolurreko teknikari dinamizatzailea den Leire Ibarretxerekin. Hirurak dira Biolurreko baratzezainen taldeko kideak, eta iazko uzta txararren aurrean datuak biltzeari ekin zioten: hemezortzi baratzezain agroekologikori bidali zieten galdegegia eta jasotako datuak eskutan etorri dira gurekin lotu duten hitzordura.

Biolurrek egin duen azterlanean nabarmendu du 2024ko eguraldia ohi baino euritsuagoa izan zela, batez ere udaberrian: maiatzean batez bestekoa baino %25 euri gehiago egin zuen eta ekainean %25-%50 artean gehiago. Tenperaturari erreparatuta, justu iazko maiatza batez bestekoa baino 1°C hotzagoa izan zen, eta ekainetik abuztura batez bestekoarekiko epelagoa, 0,5°C-1°C artean.

Eguraldiaren aldagai horiek baratze-gintzan izan zuten ondorioa honela azaldu du Ibarretxek: "Kalabaza San Isidro-tan (maiatzak 15) landatzen da baina iaz uztaila hasieran sartu zuten askok, euria, euria eta euria egin zuelako landatzeko garaian. Batez ere maiatza eta ekaina hotzagoak izan ziren, argi gutxiagokoak eta euri askoz gehiagokoak. Hiru elementu horiek gakoak dira, eta ez zuen laga lanik egiten uztailan sartu arte". Landatzeko arazoez gain, eguraldiaren ondorioz ugaltzeko arazoak ere egon direla azaldu du Ibarretxek: "Kalabazetan, dauden tenperatura eta argitasun baldintzen arabera, lorearen sexua determinatzerakoan landareak arrera edo emera joko du. Eta ar asko irteten badira eta eme gutxi, kalabaza gutxi egongo da. Hori ere gertatu zen 2024an. Uztaila nahiko formala egin zuen, baina abuztua eta iraila berriz oso freskoak, oso euritsuak eta ilunak". Ga-

bilondok ere berretsi du tenperatura eta argiaren gorabehera: haiek ere lekak iaz berandu erein zituzten, hotza egin zuela, eta piperraren uzta ere asko atzeratu zen. Aspiazuk ere iazko eguraldiaren petrala nabarmendu du: "Berandu landatu arren udazkena epeletik edo argi baldin badator, landareak badaki zikloari eusten, baina etorri zen udazken hasiera horrekin, ezin izan zen". Ibarretxe bat dator: "Konturatu gara 2024ko udan egin ziren landaketekin beste hainbeste gertatu zela: azakiak eta porruak oso gaizki joan dira, eta labore horiek garrantzia handia dute diru-sarreretan". Eguraldi busti eta epelaren ondorioz izan zituzten beste arazo batzuk ere ekarri ditu gogora Aspiazuk: onddoak eta izurriteak.

Uztaren %55 jaso zuten

Biolurreko azterlana egiteko, ekoizleen-tzat garrantzitsuak diren zortzi labore



Nere Aspiazu, Leire Ibarretxe eta Iñigo Gabilondo.

aukeratu zituzten. Aspiazuk zera azaldu du: "Labore horiek bi multzotan banatu genituen: batzuk dira udako laboreak eta besteak biltegitratzekoak direnak, negu osoa eta udaberri hasiera arte iraun dezaten. Beraz, biltegitratzeko laboreak kopuru oso handitan egiten dira eta ondorioz, horiekiko oso dependienteak gara. Adibidez, kalabaza martxora arte kontsumo taldeetako otarretan ipintzeko lain izaten dugu". Azterlanerako hautatu zituzten zortzi laboreak hauexek dira: udako laboreak diren tipulina, letxuga, leka eta tomateak; eta biltegitratzekoak diren tipula, patata, kalabaza eta babarruna.

Guztira, aurreko urteekin alderatuta batez beste %55eko uzta jaso zuten 2024an. Biolurreko kideek nabarmendu dute labore horiek direla ortuzaintzat garrantzitsuenak: "Urte osoko diru-sarreraren %40tik gora izan ahal da". Zortzi

labore horien artean, patata da gutxien bildu zena, %37 beste urteekiko alderatuta. Eta tomateak da gehien bildu zutena, %73 beste urteekin alderatuta.

Aztertutako zortzi labore horien artean, bereziki oso gaizki joan ziren biltegitratzeko direnak. Aspiazuk zera azaldu du: "Hain justu biltegitratzeko laboreak dira guri urte osoa baldintzatzen digutenak, ze udako letxuga gaizki badator bere eragina hor geratzen da, baina biltegitratzeko horiek hurrengo urteko martxora arteko otarrak eta salmenta baldintzatzen dute". Biltegitratzeko laboreen artean kalabaza izan zen gehien jaso zena, "baina hori ere %49, beraz, dena antzera", esan du Aspiazuk. Koadroan daude datu guztiak ikusgai.

NEGUTEGIAK, SOLUZIO GARESTIAK

Ibarretxek esan duenez, ondorio bat aterra dute iazko udatik: "Konturatu gara

zenbat eta negutegi gehiago eduki, laborariek gehiago libratu dutela arazoa". Aspiazuk azaldu du: "Izan ere, negutegiak bermatzen duena da eguraldia edozein izanda ere lan egiteko aukera izango dugula". Baina negutegiak ere baditu bere oztopoak, Ibarretxek zehaztu duenez: "Biolurreko baratzezainen bileran aipatu zuten negutegiekin ere arazoa dagoela, haizeteak gero eta gogorragoak direlako, eta horrek konplikatuago egiten du negutegia jartzea: aseguruak kontratatatu behar dira edo haizea moztekoak jarri, eta hori beste inbertsio bat da".

Gabilondok erantsi du gordetzeko laboreak ez direla negutegian egiten, azalera handia hartzen dutelako, adibidez kalabazak, patatak eta babarrunak. Gabilondok berak iaz negutegia erabili zuen baratzeak uzta txarra orekatzeko, baina negutegian lekua mugatua dela azaldu du, eta iazko udaberrian "egu-



Aniztasuna lantzeak bere zailtasuna du baina oreka ematen du. Kalabaza bakarrik landuko banu aurten ez nuen ezer izango
Nere Aspiazu

raldi txarra" egin izanaren ondorioak aurtengo udaberriraino kateatu zaizkio- la: "Porruak udazkenean mildiua hartu zuen eta bankal osoetako porruak txiki geratu ziren, ez ziren nahikoa garatu. Horren aurrean, erabaki behar izan ge- nuen, edo porrua kendu edo berriro lan- datu; eta ondorioz, edo porrua berandu jaso edo porru gutxiago izan. Porru uzta bermatua edukitzeko, negutegian lan- datu behar izan nuen eta beraz, negu- tegiko lur sail batzuk hipotekatu egin nituen porruarentzat eta ondorioz, uda- berrian leku gutxiago daukat beste gau- za batzuk lantzeko. Beraz, gure ekoizpe- nean aurtengo udaberriaren hasieran ere eragina izan du iazko uzta txarrak".

LARRI EGON ETA UZTA FALTA

Aspiazuk azaldu du iazko uzta txarrak agerian jarri duela proiektu askoren zaugarritasuna: "Proiektu hauetako gehienak justu-justu heltzen dira solda- ta estaltzera, eta horrelako urte bati larri eusten diote, eta horrelako beste urte bat badator, nik uste dut proiektu asko oso larri egongo liratekeela". Gabilon- dok jarraitu du: "Arazoa da ez daukagula ahalmenik koltxoia egiteko. Beraz, urte txar bat etortzen bada edo negutegia puskatzen bazaizu, zenbaki negatibota- ra zoaz segituan". Irakurleak agian gogo- ratuko du 2021ean *Duina* azterketa egin zutela baratzezain agroekologikoen lan baldintzak zenbakitara eramateko, hiru eragileren arteko elkarlanean: Biolur, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Eus- kadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekolo- gikoaren Kontseilua. Eta bertan agertu zen garai hartan baratzezainek batez beste urtean 14.990 euro irabazten zi- tuztela, Karta Sozialak duintzat jotzen zituen 16.800 eurotik behera. Gainera, baratzezainek batez beste hitzarmenak esaten duena baino %10 lanordu gehia- go sartzen dituztela neurtu zuten, eta

Aurreko urteetako uztaren %55 soilik jaso zuten 2024an batez beste

Udako laboreak	Batez beste jasotako uzta
Letxuga	%63
Tipulina	%65
Leka	%71
Tomatea	%73
Biltegitratzeko laboreak	
Patata	%37
Tipula	%45
Babarruna	%45
Kalabaza	%49

* Iturria: Biolur elkarteko baratzezainen taldeak egin duen azterlana. Hemezortzi baratzezaini egindako inkestetatik atera dituzte datuak. Baratze proiektu horiek eskualde hauetan daude kokatuta: Debabarrena, Donostialdea, Tolosaldea, Urola, Goierri, Debagoiena eta Durangaldea.

azterlana egin zutenen hitzetan zenbaki horretan "oso motz" geratu ziren, egu- nerokoan egiten dituzten hainbat lan kontabilizatu gabe geratu zirelako. Ibarretxek nabarmendu du baratze- gintza "ekonomia erreala" dela: "Ekoizten dutena saltzen dute eta horren gainean bizi dira. Beste lanpostu asko, bai indus- trian eta abar, erabat interbenituta eta sostengatuta daude, baratzezaintza ez bezala". Oroitarazi du *Duina* azterlanak erakutsi zuela baratzezain ekologikoen kasuan haien diru sarrera guztien %5,42 soilik direla dirulaguntza zuzenak. Eta jarraitu du: "Horrekin ez dugu aldarrika- tzen dirulaguntzetatik bizitzea, baina diru publikoa zelan erabiltzen den ikusita, be- netan behar duenari laguntzera bideratu dadila eskatzen dugu". Gabilondok azpi- marratu du "lehen mailako beharraz" ari garela, elikagaiez. Aspiazuk biribildu du: "Hemengo elikadura bermatu behar ba- dugu, hemengo ekoizpen proiektuak eutsi behar dira, babestu, sustatu...". Herriari jaten emateko konpromisoz egiten dute lan baratzezain agroekolo- gikoek, eta ezin izan dutenez nahi adina eskaini, "urte konplikatu" izan dela dio-

te. Aspiazu mintzo da: "Kontsumo tal- deetako otarrak bi aldetako konpromi- soan oinarritzen dira: kontsumitzaileek konpromisoa hartzen dute astero otarra hartzekoa eta ekoizleok konpromisoa hartzen dugu astero gutxieneko baraz- ki kopuru bat behintzat eraman ahalko dugula. Gure kasuan, kalabaza aurre- ko urteekin alderatuta %20 jaso dugu, eta berdin beste gauza txiki askorekin. Ni konturatu naiz gure otarra pobreago joan dela aurten, eta ez borondate txar- ratatik, ezin izan dugulako hobeto era- man baizik. Eskerrak eman nahi dizkiet asteroko otarra hartzen dutenei, horiek administrazioak baino gehiago eusten dituztelako gurearen moduko proiektu- ak. Konpromiso oso pertsonala dute, jendeak ongi eutsi dio".

ZER LANDU AURRERA BEGIRA?
Ibarretxek kontatu du Biolurreko ba- ratzezainen taldean hausnartu zutela ea azterlanean ateratako emaitza haue- kin zer egin, zelan egin aurre, helburua izanik baratze proiektuak bizigarria- goak eta bideragarriak izatea. "Irten zen lehen proposamena lan karga arintze-

ko tresnak garatzea izan zen. Hau da, lehen eskaera ez zen ekonomikoa izan". Aspiatzuk horretarako adibide positibo moduan jarri du Debagoienan martxan dagoen ortu-laguntza sistema [Garazi Zabaletak bere asteroko atalean azaldu berri du proiektu hau, ARGIAren 2.916 zenbakian]. Ortu-laguntza proiektuan, bailarako udalen eta Landa Garapen Agentziaren artean pertsona bat kontratatu dute ortuz ortu lan egin dezan. Aspiatzuk abantaila hauek ikusi dizkio sistemari: "Bailarako baratze proiektuen artean banatzen dira langile horren lan-orduak eta, proiektu bakoitzera maiz joaten denez, ederki ezagutzen du bakoitzeko martxa, adibidez, ur hartunea non dagoen, ingurunea nolakoa den eta abar. Horri esker, baja bat dagoenean egun batetik bestera primeran egin dezake ordezkapena, eta opor garaian berdin".

Biolurreko baratzezainen taldean atera zen bigarren gaia administrazioari dirulaguntzak eskatzea izan zen. Herritarroi burura datorzkigu "hondamendi natural" izendatu diren egoerak eta administrazioak kaltetuentzat dirulaguntzak bideratu izan dituenekoak. Ibarretxek azaldu duenez, halako dirulaguntzak ez daude baratzezainen tzat aurreikusita: "Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egiten dugun urteroko ohiko bileran mahai gainean jarri dugu gaia eta pilota gure teitlatuan jartzen dute, galera hori nola baloratu behar den neurtzeko". Ibarretxek azaldu du: "Baratze ekologiko batean, zenbat eta dibertsitate handiagoa egon, gero eta zailagoa da kuantifikatuta edukitzea zenbat kilo hartzen duzun labore bakoitzetik, eta azken bost urteetan batez bestekoa zein izan den... Gainera, zenbat eta proiektu txikiagoa izan, ez daukazu neurketa xehe egiteko denborarik,

Uzta txarrena biltegitratzeko diren laboreetan jaso zuten eta ondorioz, urte osoko diru-sarreretan ekarri du jaitziera

lanera zaude". Izan ere, azpimarratu du baratzezain ekologiko bakoitzak batez beste 30 labore lantzen dituela urtean. Aspiatzuk jarraitu du: "Monolaborantza denean errazagoa da kuantifikatzen. Horregatik, badira sektore batzuk beste liga batean daudenak, eta gu ez gaude hor. Gutxi garenean zailagoa da gure ahotsa helaraztea". Baina bestelako irizpide batzuk aztertzen ari dira, esaterako, horrelako urte zailetan jarduera nagusitzat laborantza dutenei errentaren araberrako dirulaguntza ematea.

Lantzen jarraitzeko hirugarren ildo bat ere atera zen Biolurreko baratzezainen artean: formatzen eta teknikoki hobetzen jarraitzea. Ibarretxek azaldu du nola egiten duten formazioa: "Hainbat etxetan arazo bera sortzen dela detektatzen dugunean, formazioa ematen dugu arazo hori lantzeko". Aspiatzuk asko baloratu du Biolurren egiten den lan kolektiboa: "Baratzezainen taldean egiten ditugun bileretan erabakitzen dugu zer landu nahi dugun. Horren arabera antolatzen dira hitzaldiak, ikastaroak... Sarea sendotzeko modu bat da. Hamabi urte daramatzagu Eskubartz proiektuan eta gustatzen zait tarteka atzera begiratzea eta hausnartzea ea zein faktore aldatuta ez ginatekeen orain gauden lekuan egongo. Eta Biolur gure ibilbidetik desagertuko balitz ez dakit gaur hemen egongo ginen: sarean sentitzea, lagunduta, babestuta, niretzat oso baliotsua

izan da, bereziki hasieran". Gabilondok jarraitu du: "Nik zazpi urte daramatzat gurasoena zen baserriaren ardura aurrrera eramaten. Biolurren ekoizle on artean asko partekatzen dugu informazioa, ez da baserritarrez egon ohi den itxitasun irudi hori, bere ortuan bere prezioak jartzen dituenarena. Denon artean partekatzen dugu".

Iazko urte txarrak Aspiatzuri balio izan dio laborantzan hautatu zuen eredu berresteko: "Aniztasuna lantzeak bere zailtasuna du, baina horrelako egoera batean sustengua eta nolabaiteko oreka ematen ditu. Kalabaza bakarririk landuko banu aurten ez nuen ezer izango. Lan egiteko modu honi arrazoia ematen dio gertaera honek, urte oso txar honetan ere jaten ematen jarraitu dugu, eskasago izan arren".

Udaberririo bezala, itxaropenez ekin diote aurten baratzean udarako laboreak erein eta landatzeari. "Aurten bai!", desio du Ibarretxek. "Pentsatu nahi dut detaile txiki pila baten baturak ekarri zuela iazkoa urte oso txarra izatea", uxatu ditu etorkizunari buruzko beldurrak Aspiatzuk. Iraganean eguraldiari lotutako eskaerak izaki zerutiarrei egiten zitzaizkiela gogoratu du Ibarretxek eta errituak berreskuratzeaz txantxa egin ostean, gizarteari zuzendu zaio: "Herritarrok eta ekoizleok sare osatzea eta konplizitate sortzea beharrezkoa da. Laborantza agroekologikoak lurrrarekin zuzenean lotuta lan egiten du, klimaren menpe dago erabat eta hor gertatzen den edozein gorabeheraren lehen eragina pairatzen dutenak laborari agroekologikoak dira. Eta gizartea beste leku batera begira dago. Gaia mahai gainean jarri behar da eta gogoratu gure elikadura dela, guk jango duguna. Denok hartu behar dugu horren ardura". ●



LEGAZPIN BIZI EUSKARAZ!



AMILLUBI PROIEKTUAREN UDABERRIKO FESTA

Antolaketa kolektiboa eta erreleboa aztergai

Maiatzaren 10ean Zestoako Iraeta auzoan kokatuta dagoen Amillubi proiektuan elkartu ziren elikadura burujabetzaren aldeko herritarrak eta laborariak.

Udaberriko Festaren bigarren edizio honetan, goizean bi mahai-inguru antolatu zituzten eta entzulez bete zen Amilibia baserri aurreko estalpea. Arratsaldean negutegian jarraitu zuen festak, umorezko hitzek eta musikak girotuta.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

 AMILLUBI

Egunari hasiera ematerakoan, antolatzaileek gogoratu zuten Amillubi "herritarrek elikagaiak eta nekazariak lurrak izateko proiektua dela, lurra ondasun kolektibo bilakatzeko helburuarekin Biolurrek 2023an abiatu zuena". Gehitu zuten elikagai osasungarriak eskuratzea giza eskubide gisa ulertzen dutela eta burujabetzaren bidean, "ekoizpen proiektu iraunkorrak, duinak eta bizigarriak sortu" nahi dituztela. Aldarrikatu zuten "egun bizi dugun krisi ekosozialean, lurrari lotutako proiektu iraunkor eta jasangarriak berebiziko lehentasuna eta garrantzia" dutela.

Gizarteak dituen arazo eta erronkei "irtenbide kolektibo bat eraikitzen hastea" ere izan du aurtengo festak helburu. Horretarako, bi mahai-inguru egin zituzten, hemen laburtu ditugunak.

ANTOLAKETA KOLEKTIBOAREN ABANTAILAK

Kolektiboan antolatuak diren hiru agroekologia proiekturen arteko mahai-inguruak abiatu zuen festa. Hirurek aipatu zuten langile bakoitzak bere ohiko lanak baditu ere, guztiek denetik egiten jakitea bermatzen dutela, inor ez dadin ezinbestekoa izan.

Eztibeltza kooperatibak Baztanen sagastiak lantzen ditu, sagardoa egiten du eta Larralde Sagardotegia kudeatzen du. Bertako langile bazkidea den Xabi Torresek azaldu zuen: "Formalki kooperatiba elkarte bat da, baina errealki kontratu pribatu bidez artikulatutako hamalau kide gara; horietatik hiru langile bazkideak gara eta besteak bazkide laguntzaileak dira. Denok jarri dugu sos kopuru bera kooperatibista izateko. Horrez gain, batzuek bere ahalmenaren arabera diru gehiago jarri dute eta hori itzuliko zaie urteekin, kooperatibak dirua irabazi ahal; hori bai, interesa zerorekin, interesa pozoia baitugu". Baina gehitu zuen: "Eta gero bada arras figura inportante bat: lagunak. Haiek aportatzen dute auzolana. Haiengatik ez balitz ez zen proiektua aitzina eramanen". Sagardotegi garaian zazpi langile kontratatzen dituztela ere azaldu zuen. Bazkidetza mota ezberdinak dituzten arren, argi dute: "Langileak dira erabakiak hartu behar dituztenak. Ezberdina da proiektu bati buruzko iritzia ematea, edo zure ogia jokoan egotea". Hori bai, bazkide laguntzaileen iritzia entzuten dute.

Mahai-inguruan parte hartu zuen beste proiektu bat Eskubaratz izan zen. Izurtzan kokatua, duela hamabi urte abiatu

zuten baratze proiektu hau hiru kidek. Egun bost langile dira eta prozesu bat martxan dute langile guztiak bazkide egiteko, eta lan eta ardurei izenak jarri eta banatzeko, horizontaltasunaren bidean. Bertako kide Asier Garaik azaldu zuen: "Izurtzan egiten dugu lana eta gehienok gara Arrasate, Bergara eta Abadiñokoak. Horrek distantzia ematen digu, sana ere badena: lana bukatzean bagoaz etxera, egin beharrekoak eginda. Lanorduak finkatuta ditugu, saiatzen gara hiru arratsalde libre izaten, eta bakoitzak lau-bost astean behin soilik egin behar dugu lan zapatuetan. Ortulangintza izateko, baldintza txukunak ditugu". Kolektiboan antolatzeak aukera hori ematen diela azaldu du: "Aurten adostu dugu sei astez oporrak izatea, eta orain arte lortu izan dugu lau aste opor egitea. Kolektibotasunak aukera ematen digu baita ere bajak eta zaintza lanak estaltzeko".

Mahai-inguruko hirugarren esperientzia Ereindajan Bergarako kontsumo kooperatiba izan zen. Bertako langile bazkide den Ainhoa Narbaizak azaldu zuen: "Lan elkartuko kooperatiba txiki bat gara, bera, eguneroko martxan langileon esku daude erabaki garrantzitsuenak. Baina badaude kontsumitzaile bazkideak eta

“ ”

Kolektiboan antolatzeak errazten du bajak eta oporraldiak estaltzea

Asier Garai

ekoizleak ere, eta batzarren bidez hartzen dira erabaki estrategikoak". Bergarako Elikadura Mahaian eragile aktiboak dira eta erakunde publikoekin elkarlanean aritzen dira hainbat proiektutan. Azaldu zuen horrelakoetan oso garrantzitsua dela "atzean oinarri sozial sendoa izatea, babes hori gabe ez goaz inora".

ERRELEBORAKO GAKOAK

Bigarren mahai-inguruan, erreleboaz aritu ziren beste hiru esperientzia. Baztango Xurie ardo ekoizpena Arizkunen abiatu zuten 2013an hutsetik bi lagunek. Ana Iriartek kontatu zituen izandako hiru arazo blokeak: "Bata lurrera sarbidea da, ez genuen lurrik, ez lurra erosteko gaitasun ekonomikorik ere, eta bilatu genuen aterabidea izan zen lurra alokatzea. Beste zailtasun bloke bat ekonomikoa da: proiektua abiatzeko inbertsioa egitea batetik, eta mahastiak uzta ematen hasi bitartean hainbat urtez ekonomikoki irautea, bestetik. Dirulaguntzei esker lortu genuen inbertsioei aurre egitea. Eta ekoizten hasi arteko denboran iraun ahal izateko bilatu genuen irtenbidea izan zen bietako batek kanpoan lan egitea; egun ere kanpoko egun erdiko lana du kideak, ekonomikoki eutsi ahal izateko. Hirugarren zailtasun bloke burokratikoa da. Benetan faltan nabari dugu leihatila bakar bat, gure ideia azaldu eta egin beharreko tramiteen zerrenda bat emango diguna". Berritik hasi zirenez, beste oztopo bat izan zen ez zutela transmisiorik jaso: "Ekoizpenari



buruzko jakintza eskuratzeko Baigorriko mahastizainengana jo genuen. Fraisoron ikastaro zehatzak egin izan ditugu eta guretzat Biolur formazio iturri handia izan da mahastigintza ekologikoa".

Errelebo aldetik oso bestelako esperientzia da Bizkaiganeakoa: duela 40 urte baino lehenago bizpahiru kidek Errigoin sortua, behiak zaindu eta esnea eta esnekiak lantzen dituen. Xabi Sabalza kideak azaldu zuen: "Guk erreleboa hartu dugunez, erraztasun bat izan da bagenekielara gure eredua bideragarria zela. 2019 urte inguruan ikusita proiektua abiatu zutenak erretiroa hartzeko adinean zeudela, planteatu genuen be-launaldi erreleboa egitea, modu integratuean. Ikusi genuen hamar pertsonako lantaldea izan behar ginela proiektua iraunkorra eta jasangarria izateko. Eta proiektuaren erreleboaz gain azpiegiturarena ere egin genuen, aurrekoak zaharkituta zeudelako. Orain taldea egonkortzeko eta azpiegiturak ordaintzeko momentuan gaude. Baina argi izan dugu azpiegiturak ez genituela egingo guretzat, baizik eta sektorearentzat. Diru publikoa jaso dugu eraikin horiek berritzeko eta diru publikoa ezin da pribatizatu. Estatutueta jaso dugu, egun gu garela

proiektua kudeatzen dugunak, baina ez garelara proiektuaren jabeak: ezin dugu saldu eta nork bere zatia poltsikora eraman. Azpiegitura beti geratuko da hor, eta proiektu batek erabili ahalko du, modu agrokologikoa bada".

Anoetako Gregorio Zuaznabar Sarobe baserrian jaiotakoa da eta mahai-inguruan azaldu zuenez, 24 urterekin erabaki zuen baserrian geratzea: "Eta gure gurasoek egiten zuten lana jarraitzea". Bikotekidearen eta bien artean daramate baserria, baina erretiroaren atarian daude: "Eta ez daukagu familian jarraituko duen inor". Erreleboa topatu nahi dute, norbaitek baserri horretan ekoizten jarraitu dezan. Azaldu zuen prozesu horretan laguntza handia litzatekeela, eragileren baten bidez edo, erreleboa eman behar dutenak eta hartzeko prest egon daitezkeenak elkarrekin harremanetan jartzeko bidea zabaltzea. Bestalde, horrelako prozesu batean gai asko landu behar direla eta alor horietan aholkularitza jasotzea beharrezko dela esan zuen. Ikuspegi irekia azaldu zuen, haiek orain artean lana egiteko modu bat izan dutela eta atzetik datozenek haiena garatuko dutela: "Guretik gustatu zaiena hartuta eta beste gauza batzuk gehituta". ●

Oraina ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!

Nafarroa, lurralde ekologikoa 2025

Ezagutu ekoizpen ekologikoaren datuak






Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural

cpaen.org
navarraecologica.org

ZIBURUKO AZOKA



Ekainaren 7koa Ziburuko 6. Euskal Liburu eta Disko Azoka izango da. Argazkia 2024ko ediziokoa da.

Ziburun euskaraz izango gara

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Entzun berri dut Ziburuko 6. Euskal Liburu eta Disko Azokaren aurkezpena, eta diskurtsoak berak piztu dit, hasteko, joateko gogo. Akaso koofizialtasun faltsuaren eremuan bizi garenon lekutik natorrelako izango da, baina euskararen gaiari politikotik heltzeak harapatu nau. Hizkuntza zapaldua den herri batean plaza euskara hutsez bete nahia zer da ba, politikoa ez bada?

Ekainaren 7an iragango den azokaren egitarau zabala aurkezteaz bat gogorazi dute apirilean eta maiatzean Azokaroa antolatu dutela Ipar Euskal Herriko hainbat txokotan; dozena erdi ekintza kultural, liburu aurkezpenak, errezitaldiak eta mahai-inguruak tarteko, eta oraindik ekintza horietako batzuetara joateko aukera dago (ikus helbide honetan): www.argia.eus/albiste/azokaroa-sei-ekintza-kultural-ziburuko-6-azokaren-atarian.

IZENA HARTUZ

Badoa bere lekua egiten euskaldunon agendetan Ziburuko Azoka, ekainaren lehen larunbatarekin igaroko dena seigarren urtez. Edizio batetik bestera argitaletxe, diskoetxe eta autoekoizleen presentzia gora doa eta aurren, 33 mahai jarriko dituzte liburugintzari eskainiak eta 10, berriz, musikagintzari lotuak. “2024an ez zeuden lau argitaletxek parte hartuko dute edizio honetan eta musika arloan bost autoekoizle edo proiektu berrik mahaia atxikiko dute”, azpimarratu dute.


Euskaraz bagara da 2025eko leloa eta ondokoa, prentsurrekoan helarazitako mezua: “Frantses nazioa ‘fabrikatu’ da menpe hartu dituen herrien mintzairak suntsituz eta bere legeak inposatuz. Hala jarraitzen du heien erabilera udaletxe (katalanera), legebiltzar (korsikera), azterketa edo auzitegietan (euskara) de-

bekatz. Euskararen gaia osoki politikoa da, beraz: pairatzen duen larrialdia ez da halabarrez gertatzen, gure mintzaira ezabatu nahi duten politika kolonialisten ondorio zuzenez baizik.

Berdin gertatzen da EAEn, koofizialtasun faltsuaren eremuan: euskara jakitea eskubidea da, espainola, aldiz, obligazioa. Euskararen aurkako oldarraldi judizial-politiko euskarafobo betean gaude, jadanik eskasak ditugun eskubideak are gehiago murrizteko, ustezko diskriminazioaren aurka aritzeko aitzakian. Okerrago Nafarroan, euskaraz ikasteko eskubidea nafar guzietan bermatua ez zaielarik...

Hemen kanpoko legea da nagusi, batzuetan ahanzten baitugu lortu porroska bakanek anestesiatutik: gu hobeki asimilatzeke euskara desagerrarazi nahi dute, hizkuntzak egiten gaituelako herri.

Horregatik diogu: *Euskaraz bagara*”. ●



Baso bat Veneziaren azpian



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Veneziako urmaela, 452. urtea. Hu-
noen inbasioak bultzatuta, Italiar
penintsulako barrualdeko hainbat
biztanlek eremu zingiratsuan hartu zuten
behin behineko babes. Baina lonbardia-
rren inbasioak iritsi ziren urte batzue-
tan, eta bizitoki iraunkorra bihurtuko zen
etorkin haientzat. Kokaleku paregabea
zen barbaroengandik babesteko eta, ge-
rora, itsas potentzia izateko bidea eman
zien. Baina zingiran eraikitzea ez zen
erraza. Eta horretarako egurrezko zutoin
sistema konplexua garatu zuten.

Venezia ez da egurrezko zutoinen
gainean eraikitako hiri bakarra. Euro-
pan bertan, Amsterdam da beste adibide
bat. Baina Amsterdamen arroka-geru-
za ur azaletik askoz gertuago dago, eta
Venezian ez zegoen zimenduak arroka
sakonean tinkatzeko modurik. Euska-
rri solidorik ezean, bere buruari eus-
ten dion sistema sortu zuten: zutoinak
modu konpaktatuan jarrita, presioak
berak egiten du euskarri lana. Baina, ho-
rretarako, lan eta egur asko behar zen.

Lanbide berezia sortu zen: *battipali*-en
lana zutoinak etengabe mailuz kolpatzea
zen. Batez beste, metro koadroko bede-
ratzi zutoin erabiltzen zituzten. Horrek
esan nahi du, esaterako, Rialtoko zubia-
ren zimenduak 14.000 zutoinez osatuta
daudela eta, diotenez, 832an San Markos
basilika eraikitzen hasteko, 10.000 ha-
ritz bota behar izan zituzten; haritzarena
zen egurrik preziatuena eta, gerora, soilik
itsasontziak eraikitzeke erabiliko zuten.



TRUST IN SCIENCE

Haritzek gain, mendetan zehar Cado-
reko mendietako eta Fiemme bailarako
miloika alertze, haltz, pinu, izei eta zumar
erabili zituzten zimendu gisa. Horregatik
esaten da hiriaren azpian baso bat dagoe-
la, Venezia baso alderantzikatua dela.

Baso hila da, jakina, baina inguruko
basoei bizirik eusteko ahaleginak bul-
tzatu zituen. Fiemmeko bailarako 1111.
urteko dokumentu ofizial batek basoak
agortu gabe ustiatzeko arauak jasotzen
ditu. Nicola Macchioni bioekonomilaria-
ren ustez, horrek esan nahi du idatziz
jaso baino askoz lehenago hasi zirela
neurri horiek hartzen eta, horrenbestez,
“basogintza Venezian asmatu” zela.

XIX. mendean egurrezko egiturak
baztertu eta zementuzko eta altzairuzko

zimenduak eraikitzen hasi arren, egurra
erabiltzeko joera nagusitzen hasi da be-
rriro. Egurrezko egitura zaharrak egoe-
ra anaerobikoan daude, eta, oxigenorik
ezean, ondoek eta intsektuek ezin diete
eraso. Bakterioek bai, ordea, egurra as-
koz mantsoago “jaten” duten arren. Gai-
nera, bakterioek eragindako hutsuneak
lohiak betetzen ditu, egituren jatorrizko
formari eta presioari eutsiz.

Alezander Puzrin Zuricheko ETH uni-
bertsitateko geomekanikariak dioenez,
“gaur egun, hormigoizko edo altzairuzko
paldoak berrogeita hamar urteko bermez
diseinatzen dituzte; gehiago iraun deza-
kete, baina hori da estandarra”. Veneziako
urpeko basoak, aldiz, milurte eta erdian
eutsi dio. ●



ITALIAKO KULTURA MINISTERIOA

Patriarkatua aurkitu dute?

Erromako San Giovanni in Laterano pla-
zan, errutinazko indusketa bat egiten ari
zirela, arkeologoek IX.-XIII. mendeetako
jauregi baten arrastoak topatu dituzte
ezustean. Eta garai hartako aita santuen
bizitokia izan litekeela uste dute. Beste-
la esanda, baliteke Patriarkatua aurki-
tu izana. Konstantino enperadoreak IV.
mendean eraikiarazitako basilika zen

Patriarkatua. Erdi Aroan etengabe za-
baldu eta berriro zuten eraikina, eta ai-
tasantutzaren egoitza izan zen, 1303an
Avignonera aldatu ziren arte. 1377an
Erromara itzuli zirenean, Vatikanon
eraiki zuten egoitza berria eta, hala, Pa-
triarkatuaren izena galdu zuen aitasan-
tutzak, patriarkatuaren izaerari gaur-
daino tinko eusten dion arren. ●

MALLORCA



JOSEBE BLANCO

Kapitalismoaren lekuan lekuko eta garaian garaiko egoerara moldatzeko gaitasuna harrigarria egiten zait batzuetan. Espero ez duzun tokian azaltzen dira antzekotasunak, eta hara non, bat-batean konturatzen zara munstroak Mallorcan hartzen duen itxura ez dagoela etxean bertan bizi duzunik hain urrutit; makillajea eta jantzia aldatu ditu, portaeran, ordea, alderik ez: ahal dela, bizitza(k) xurgatu.

Rosa etxera etorri zenean, Mallorcan ez genekien ezertxo ere; lau gauzatxo kenduta, turisten inbasioetara mugatzen zen gure ezagutza. Rosarekin hilabetez bizi izanak mugitzeko gure modua eta mugimendua bera birplanteatzera ekarri gaitu.

Turismoaz, besteak beste, luze hitz egin dugu mahaiaren bueltan, eta une jakin batean, galdera pausatu genion: ze ezberdintasun dago bidaiari eta turistaren artean? Erantzunak mamuak piztu zituen: zoazen lekuan zu egoteko egiturazko aldaketak gauzatu behar badira, turista zara. Adibidea ere jarri zigun: baserriarrak turistak etxean hartzeko janaria sortzeari uzten badio eta nekazariturismoa irekitzen badi, hor egiturazko aldaketa dago, bertakoentzako galera, eta ez edozein; azken finean, elikadurarako eskubidean urraketa gertatzen da –hau bereziki larria da irla batez ari bagara–.

Halako batean, mamuek gure etxeko oporrez jardun zuten, hitz eta pitz; isilune deserosoaren ostean, galdera are deserosoagoa etorri zen: zenbat Mallorca txiki sortu dituzue bazterretan?

Rosari entzundakoak birpasatu ditugu. Bertakoek zailtasun izugarriak dituzte etxebizitza eskuratzeko, izan alokairuan izan jabetzan. Geolokalizazioak bukatu ditu irlatarren umetako paradisuak. Nekazaritzarako edo abeltzaintzarako lurra prezio urbanistikoko-espekulatibotan daude, ezin barazki, esneki edo haragiarekin horiek ordaindu eta



MIKE KIT / PEXELS.COM

norbera bizi. Iturburuek ezin hornitu udan bikoizten den populazioa eta euren beharrak eta nahiak. Naturaren babeserako legeen gainera dago kirolari *cool*aren inperioa –kirolaria ez den beste edozein *cool* balitz ere, berdin balio du–. Turismo sektorean lan egiten dutenen lan eta bizi baldintzak esklabotzatik gertuago daude langileen eskubideen kartatik baino. Gero eta gehiago dira hoteletan lanean ari direnen artean nagusiei eskatzen dizkietenak sotoetan ohatzeak jar ditzatela, arren, lo egiteko lekuri ezin dutelako ordaindu. Demasiak balkoietan du ostatu: Ibzan balkoi batean bizitzaren truke 500€ ordaintzen dira. Eta ez dago ihesbiderik, 83 kilometroak bukatutakoan, aio esperantza eta kaixo erbestea. Jarrai nezake zerrendarekin, baina gibelak ezin du amorru gehiagorekin, hark ere gainezka egin du.

Zein mailatan elikatu dugu, denok ere, kapitalismoaren makinaria hori?

Ez da alferrik etorri Rosa gurera. Etxe honetan berak zenbateraino ikasi duen ez dakit, guk dezente. Badira zazpi bat urte Quimi, beste wwoofer –proiektu edo baserri ekologikoetara etortzen diren bolondresak– bati, arrazoi politikoak zirela eta hegazkinik ez hartzen ikasi genionetik. Gazte hark Lleida eta Suitzaren artekoak lurrez egiten zituen,

garraio publikoan. Hura Linak berritu zuen neguan, Alemaniako bidaia hura ere lurrez eginda. Rosa etorri da dena berritzera eta osatzera.

Hau idatzi bitartean, komunikabideetatik –publiko zein pribatu– jasotzen diren datuak kontrako noranzkoan doaz. Dena da poza eta bozkario Loiuko aireportutik zenbat hegaldi aterata diren esatean, harrotasuna uhinetan bidaiatzen da hoteletako eta ostatuetako okupazio-maila aipatzeko orduan. Hurrengo asteotan etorriko da turistek ustez utzitako dirutzen gorazarrea.

Datuen B aldeari inork ez dio erreparatzen, inon ez dira azaltzen pertsonengan eta planetan utzitako ajeak. CO2 isurien lorratzik ez da ageri. Ezta energia kontsumoaren murrizketarik ere. Klima-aldaketa auzo dago. Trantsizio energetikoa lekualdatu da. Oporrek utzitako hutsuneak sekretupean gorde dira.

Agerikoa da, ordea, lagun batek dioen moduan, jaietako azken egunean gaudela eta ez diogula mozkortuta egoteari utzi nahi, barraketatik jaitsi gabe bizi –edo– nahi dugula.

Bitartean, planetak jada musika kendu du eta hasi da argiak itzaltzen. Gonbito kiratsak dena hartzen du.

Etxera joateko ordua aspaldi jo zuen erlojuak. ●

A ZE FAUNA!

ZIZAREAK
OLATUPEKO
HONDARRETAN

NAGORE ZALDUA MENDIZABAL
ARANZADIKO KIDEA

Haurtzaroan, lursailen batean, parkeren batean edo baserri giroko lurretan sarritan izaten genituen “txitxareak” eskuartean... Jolas guneak gero eta artifizialagoak diren garai hauetan ordea, zaila da hiri nahiz herri-guneetan halakoak topatzea. Baina itsasoko fauna ezagutzen dutenek badakite, hain eskura ez dauden urpeko hondartza nahiz arroka artean ere halakoak badirela; eta baratzeakoak baino ikusgarriagoak gainera. Jantzi zure irudimena bainujantzi eta urpekari-maskareekin, eta murgildu gure itsas bazterretan hain ezagun ez diren zizareen bila.

Anelidoak gorputza segmentutan banatua duten zizare edo harrak dira; lehorrekoak, ur gezetakoak nahiz itsaso-koak. Azken hauek “poliketo” izenarekin ezagutzen ditugu eta itsas ingurune ia guztietan aurkitzen dira: planktonean, gainazaleko uretan eta eremu sakonetako bentos-ean, baita urpeko iturri bolkanikoetatik gertu ere. Harrapariak, sedimentarioak eta iragazleak izanik, espeziearen arabera modu askean, substratuaren barruan nahiz euren babeserako propio sortutako hodien barruan bizi dira. Poliketo guztiek gorputz luzanga, biguna eta segmentu ia berdinetan banatua duten arren (metameroak), beraien kanpo itxura oso anitza da.

Kantauri itsasoan ditugun horien guztien artean badira batzuk, hodi barruan bizita ere, muturretik luma-motots ikusgarriak ateratzen dituztenak: espirogra-

foak. Izen honek aipatu luma itxurako koloretako brankiek espirolean duten kokapenari egiten dio erreferentzia.

Kantauriko uretan topatu dezakegun espirografoaren brankioek kolore horia, beltza eta urdina hartzen dute, eta arnasketa funtzioaz gain, elikatzeko ere balio dute: hala, ura iragazi eta uretan dauden partikula txikiak atxikitzen dituzte.

Luma lirain horiek korronteen menpeko dantza liluragarria eskaintzen dute, urpekarion begien gozamenerako. Baina kontuz, dantza hori erraz eten daiteke eta. Izan ere, brankia horiek oso sentikorrak dira eta erraz hautematen dute inguruan edozein aldaketa; hala, zerbaitek gogaitzen baditu, hodian barruan ezkutatzen eta babesten dira berehala. Beraz, urpean ikusi nahi izatekotan, mugimendu lasai, goxo eta eztiak egin beharko ditugu, olatuen kulunka ordezkaturak.

Babes hodia eraikitzeak, esekiduran dabiltzan hare-aleak luma-mototsekin gatibu hartu eta zizareak berak jariatzen duen mukiaren laguntzaz zimendatzen ditu, tokian toki.

Animaliok kanpo ernalketa bidez ugaltzen dira, gametoak uretara askatuta; arrautza ernalduak larba bilakatuko dira (“trokoforo” deiturikoak), garai honetan planktonaren parte direnak. Heldu bila-



ALFREDO UBIERNA CC BY-NC-SA

LUMA-MOTOTSA

Sabella spallanzanii

TALDEA: Anelidoa / Sabellida.

NEURRIA: 60 cm izatera heldu daiteke. Luma-mototsak 20 cm izan ditzake.

NON BIZI DA? Atlantikoan, Ipar itsasotik Marokoraino, eta Mediterraneoan. Eremu babestuetan zein korronte indartsuetan. 30 metroko sakoneraraino iristen da.

BABES MAILA: Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batasunaren Zerrenda Gorrian “Kaltebera” izendatua.

katzerako, gorputza luzatua eta segmentutan banatua izango dute. Luma-motots asko leku berean elkarrekin finkatzen badira, arrezife handiak sor ditzakete, bizidun askorentzat habitata osatuta.

Jantzi oinetako hegatsak eta murgildu luma-motots eder horien bila! ●

PAGOTXA ETA BESTE PAGOTXAK



Pagotxa loretan (*Trifolium incarnatum*).



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

A ze pagotxa!, esan ohi dugu. Pagotxa edo mauka edo txokoa edo mantxunga edo... onturre edo probetxu ona ateratzen zaion zerbaiti edo horren aukerari esaten zaio "pagotxa". Pagotxa berez landare bat da (*Trifolium incarnatum*), hirusta gorrimin koloreko lorea duena, bai. Belar horren izena nolatan erabili da aukera edo mauka adierazteko? Gaur egungo nekazari jende bakan batzuek besterik ez dute pagotxa ezagutzen, baina aurrekoek ezagutzen zuten, bai. Jende heldu askori galdetu izan diot nolatan parekatze xeble hori, eta gehienek bi gauza aipatzen dituzte. Baga, aziendarentzako jatenik onenetakoa da eta, biga, ukuiluratzeko segatzen eta biltzen oso erraza da. Segan ikasten ari ziren gaztetxoek pagotxa eta alpapa (*Medicago sativa*) omen zituzten eskola onenak.

Pagotxa bai, oso elikagai ona da aziendarentzat. Lekadun guztiek bezala, aparteko eman-hartua dute nitrogenoarekin. Sustraietan apopilo hartzen dituzte bakterio nitrofilo batzuk eta haiei azukreak ematen dizkiete eta trukean bakterioek nitrogeno ugari ekartzen dute airetik hartuta. Nitrogeno hori da landareen elikagai nagusia, eta hostoa, zarba, mastra susta-

tzen du, landarearen berdeari saka egin eta aitzinatzen du. Ondorioz, lekadunak proteinatan aberatsak dira eta belarjaleek maite dituzte. Era berean, lurra ere nitrogenoz asetzen dute.

Pagotxa eta alpapa dira hemen ezagunenak; lantzen errazak eta onenak direlako izango da, baina ez dira bakarrik. Hor ditugu hirusta gorria (*Trifolium pratense*), hirusta zuria edo zuri-hirusta (*Trifolium repens*), txirta edo zalkea edo zalga edo lal-gene edo beza-borta edo zuhain-zalkea (*Vicia sativa*), basazalkea edo txingila (*Vicia cracca*), basatxintxila edo apo-ilarra (*Vicia lutea*), xotxa edo itsabalkia (*Melilotus officinalis*), mendiko uso-belarra (*Lotus corniculatus*) eta astorkia (*Onobrychis viciifolia*).

Garai batean horietako asko ezagutzen ziren eta gehienak erein egiten ziren; bai larreak aberastu eta azienda belarjaleari eguneroko horzkadakoak goxatzeko, bai belardietako belarrak moztu eta berdetan jatenetan emateko, edo onduta jaso eta azienda ukuiluan denean, edo kanpoan jaten urritzen denean haren anoa osatzeko erabil daitezke lekadun hazkurritsuak. Ha ze pagotxa! Denak pagotxa.

Adibidez, astorkia izugarri maite du behor aziendak, eta hortik datorkio

Onobrychis izena: grekoz "ono" mandoa da eta "brycho" gogoz jatea, beraz, mando jendeak gogotsu jaten duena. Euskarazko "astorki" izena ez dakit noiztik erabiltzen den, baina burutazio beretik sortua da. Jose Maria Lakoizketa Santesteban apez botanikari handiak honela azaltzen du bere *Diccionario de los nombres éuskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares castellanos y franceses y científicos latinos* 1888ko liburuan: asto + orri + kia eta esanahia "astoari arrantza eginarazten dion orria", izan ere, hainbeste gustatzen zaio, ze jan ahala arrantzari ekiten baitio.

Larre lekadunen ereintza udazkenean egiten da. Neguaren amaiera arte sendotu eta sustraijea hedatu eta indartzen du. Udaberriarekin, gauaren iluna moztu eta egunaren argia 12 ordu baino gehiago luzatzen denean, garatu, loratu eta haziak sortzera joko dute. Polinizatzaileek ere maite dituzte, eta eztiari aparteko das-ta eransten diotela diote. Lur eta klima baldintza gogorak eramateko gai dira. Gehienetan lekadunak loretan hasi orduko moztu egiten dira, baina loraldi ikusgarria dute, kolore deigarrietakoak. Deigarrienetakoa pagotxa bera da, ea inon topatzen duzun, gorrietan gorri. ●

EZPELZAINZA 2050

SITSAK MUNDUKO EZPEL BASO HANDIENA SUNTSITU EZ DEZAN



GARAZI ZABALETA



Beldarrak harrapatzeko tranpa.

Pirinioetan dago ezpel basatien munduko eremurik handiena, eta hain zuzen Nafarroako Pirinioan, Abaurregainan, sortu zuten 2020an *Ezpelzaintza 2050* egitasmoa. *Cydalima perspectalis* sitsa hondamendi handia eragiten ari da ezpeldietan azken urteotan, eta espeziea babesteko eta mantentzeko lanetan ari dira proiektuko kideak. “2019an izan genuen Nafarroan ezpela suntsitzen ari zen sits izurritearen berri, baina altitudeagatik, oraindik ez zen gurera iritsi. Bagenekien hona ere ailegatuko zela, eta beraz, gure basoak oraindik osasuntsu zeudela aprobetxatuz, ezpel haziak biltzeari ekin genion”, azaldu du Nayara Tanit Ibañez San Millanek, proiektuko kideak.

EZPELA, LORATEGIETAKO HESI

Bi ezpel mota daudela azaldu du Ibañezek: basatia eta apaingarria. “Pirinioetatik Alpeen hegoalderaino doa munduko ezpel baso zabalena; bertako ezpela da, basatia. Baina, basoetan ez ezik, hirietako lorategietan, biribilguneetan, parkeetan eta bestelakoetan ere ugaria da, kasu horretan, apaingarria

rrri gisa erabiltzen den mota”, dio. Hain zuzen, ezpel apaingarri horietan dago hondamendia eragiten ari den sitsaren jatorria. “Kasu askotan urrunetik ekarritakoak dira lorategietako ezpelak, eta kanpoko gaixotasun eta izurriteak ekar ditzakete, ezpel horietatik basatietara pasatzen direnak”, gehitu du.

Abaurregainan 2020an hasi ziren ezpela babesteko ekimenak antolatzen, eta besteak beste, ezpelaren hazi-bankua osatzeko egitasmoa egin zuten herrian. “Herritarren parte-hartzearekin lortu genuen hazi-bankua osatzea. Taldetan ateratzen ziren ezpelaren fruituak biltzera”, dio Ibañezek. Urte horretan ohartu ziren sitsa iritsia zela inguru horretara ere, eta 2021erako izurritea zabaldua zegoen. “Orduan erabaki genuen formalki Ezpelzaintza 2050 elkarte sortzea”, gehitu du.

BAZKIDEEN EKARPENekin, ESPEZIEA BABESTEKO EKIMENAK

Herrialde Katalanetan badira ezpelaren babeserako hainbat talde, basoak fumigatuta eta bestelako ekimenekin espeziearen babes lana egiten ari direnak, baina bestelako bidea hartu du

Nafarroako proiektuak. “Arazoaren muinera jo nahi dugu guk, eta zein da arazoaren muina? Ezpelaren merkataritza, eta izurritea eragin duen sits espezie inbaditzaile exotikoa”, dio. Izurriteaz asko hitz egiten bada ere, Espainiako estatuko legeak ez du sitsa espezie inbaditzaileen katalogoan sartua, eta hori aldatzeko eskaera egin zuen elkarteak 2021ean.

Horrez gain, ezpelaren babeserako bestelako ekimenak ere abiatu dituzte: hazi-bankua hedatzea, sitsa harrapatzeko tranpak jartzea, zuhaitzak geolokalizatzeko “ezpel-bilatzailea” tresna sortzea, beldarrak harrapatzeko tailerrak, ezpelari lotutako ondare immaterialaren bilketa... “Alemanian hamar urtetan ezpel-basoen %98 galdu da, oso azkar ugaltzen baita beldarra”, azaldu du. 2050. urtean bertako ezpel basoak galduta egon ez daitezen lanean segitzeko konpromisoa du elkarteak, eta kideak nabarmendu duenez, bazkideen ekarpenak ezinbestekoak dira bide horretan. ezpelzaintza.org webgunean dago informazio guztia eta bertan eman dakioke babeserako proiektuari. ●



Icebergaren punta

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

PUTAREN BAKARRIZKETA EROETXEAN

EGILEAK: Franca Rame eta Dario Fo.

ITZULTZAILEA: Xabi Martinez De Lezea.

AKTOREA: Laura Penagos.

NOIZ: apirilaren 12an.

NON: Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean.

Icebergaren punta soilik ikusten bada, eta ez badakigu zerk itotzen gaituen, erraza da epaitzea nor dagoen ero.

Emakume bat, bakarrik: migratzailea, proletarioa, puta. Ezpainetakoa musueta-
ra zabalduta, eskuetako zorroa, lentzeria, eranztzen dituen takoiak, hautsitako me-
diak, nekatuta dauden begiak eta egiak; egiak besterik ez. Eroetxeko lau paretan-
aren artean harrapatuta dago, etengabe kontrolatzen ari zaion kamera bat eskui-
nean eta mila begi aurrean, berez, ispiluaren atzean leudekeenak. Interrogatorio bat, baina ikusleak erantzunak baino ez ditu entzungo. Eta erantzunak “gaixoaren krisialdiaren” zergatia azaltzen duten lekukotzak dira. Egiak, egiak besterik ez.

Sormen lan honek hausnarketara gonbidatu nahi du hartzailea. Umorerako une laburrak badaude ere, deserosoak ez esatearren, kritika da gailentzen dena. Izenburu erakargarri bezain probokatzaileak hamaika ertz ukitzen ditu: sexualitatea, bortxaketak, soldatapeko lana, boterea, mespretxua, bakardadea, gaixotasuna,

ezonegona... Bidaia sakon bezain gogorra ekarriko dio ikusleari. Eta galderak: eroaren testigantza kontatu nahi dute ala horren bidez ikuslearen begirada zorroztu eta zoramena botereak definitzen duela ikusarazi? Hau da, botereak nahiago duela icebergaren punta seinatu eta azpian dagoena ur azpian mantendu. Une batean protagonistak dio: “Zer da puta bat? Lanik egin gabe bizitzeko gakoa aurkitu duen hori dela diote. Nik nahikoa lan egin dut, ba. Neskame izan nintzen eta larrua jo zidaten. Fabrika batean egin nuen lan eta berdin. Eta larrua jotzen uzten bazara gustatzen zaizulako da. Tentela! Ba ez, ez zait gustatzen. Bai, badakit, errazegia da. Oso eroso da errua gizonei botatzea edo gizaritari. Nire amak esaten zidan: neska batek ezin du ohoretua izan, hiltzen utzi beharko litzateke aurrea. Eta nik hori egin dut, hiltzen utzi. Zortzi ordu fabrika lanean eta ordu extrak. Orduan hasi nintzen krisialdiarekin”.

Proposamen interesgarria da 1990eko lan bat euskal eszenatokietara ekartzea

eta orain ere lekuri baduela ikusaraztea. Euskaraz aurkezteak gurera dakar kontatzen duen errealtatea, eta gure gaur egungo gizartean ezin hobeto txertatzen da.

Eszenaratzeak badu modernotik, eta formatu txikikoa izan arren xarma handia du: gela txiki hartako itxitasuna islatzen du espazio ireki batean, eta kontrolaren klaustrofobia sentiarazi. Atzealdean pantaia bat dago, eta kamera grabatzen ari dena proiektatzen du; hau da, protagonista bera. Horrek bosgarren paretan bat eskeintzen dio agertokiari, momentu bereko bi ikuspegi islatuz uneoro.

Antzezlanaren amaitzean solasaldia eskaini du Laura Penagos aktoreak. Prozesuaren berri emateaz eta bere ideiak kontatzeaz gain, publikoa animatu (ez behartu) nahi izaten du hitz egitera. Antzerkia katarsia eta kritikarako gunea izan daiteke, edonolako istorioak ikusi, ikuslearengan kontzientzia piztu eta oihartzuna zabaltzen dituen. Antzezlari honek arrastoa uzteko aukera asko du. ●

“ ”

Sinpatikoak izaten saiatu gara, baina horrek ez digu funtzionatzen

Ziburuko Euskal Liburu eta Diskoen Azokak 6. edizioa izango du aurtengoa. Ekainaren 7an egingo da, ohi bezala larunbatez, Baltsan elkarteak eta ARGIA komunikabideak antolatuta. Atarian, sorkuntzaren giblean dagoenaz mintzatzeko, maiz bistaratua ez den baina zorionez geroz eta gehiagotan adieraz-

ten den argi-ilunez beteriko egunero-kotasunaz gogoetatzeko mahai ingurua antolatu dute ARGIAk eta Euskal Irratiek elkarlanean: *Euskaraz sortuz (ezin) bizi* izenburupean, solasean Amagoia Gurrutxaga Lanarteako kidea eta Ximun Fuchs antzezle, zuzendari eta Axut! kolektiboko sortzailea.

 GORKA PEÑAGARIKANO / MAIA MURUAGA (EUSKAL IRRATIAK)

 DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA



Entzun irratsaioa
argia.eus-en

Ondorengo aipu honek ezar diezaguke aterki aproposa. Lanarteak esana da, Eusko Legebiltzarreko agerraldi batean:

Gizarteak ez gaitu subjektu ekonomiko gisa ikusten. Irudi erromantiko eta bohemio samarra dauka gutaz; hodeietan bizi garelakoan, txaloek eta noizbehinkako sariak asetzen gaituztelakoan. Gure entzule, irakurle eta erosle gehienek begietara ez gara langileak. Eta administrazioak ez digu ematen gure jardun profesionalak behar duen arreta eta errespetua. Eskubideak dauzkagu, baina sistemak ez daki eskua ematen.

Zer da Lanartea? Noiz, nola eta zergatik sortu zen?

Amagoia Gurrutxaga: Kultura euskaraz eta euskaratik egiten duten artistek, oro har beterranoek, bultzatuta sortu zen elkartea, behar larri bat ikusten zutelako. Jakin zuten idazle gazte bat, oso ezaguna zena momentu horretan –gaur egungo gizartearen “arrakastatsu” esango genukeena–, partekatzen zuen Donostiako etxeke gelaren alokairua ezin ordainduta zebilela, ez zuela lain irabazten. “Nola da posible?”, esan zuten. “Gizartearen arabera arrakasta dauka, eta ezin du bere logela ordaindu”.

Idazle beterrano lagunarte hori hasi zen gertuko kazetariekin-eta hizketan, jende artean komentatzen, pasatu ziren beste diziplinetara, sektorearen azterlan puntualak egitera... Horrela aritu ziren 2017 eta 2018 inguruan. Lehen bilkura garrantzitsua 2019an egin zuten, eta 2020an erregistratu ziren irabazi asmorik gabeko elkarte moduan. Hasiararik adierazi zuten bokazioa zutela sindikatu gisa funtzionatzeko.

Euskarazko sortzaileek eskubideak dituzuela, eta administrazioak ez dakiela esku ematen... Preseski, Ximun, errealitate horri axut eginez,

Axut! kolektiboa sortu zenuten, hala nola antzerkia garatzeko helburuarekin, jakinez euskarazko sorkuntzak gutxiago lagunduak direla?

Ximun Fuchs: Kolektiboa sortu genuen 2018an hainbat helbururekin, baina nagusiki ideia honekin: euskaraz bizi den antzerkiari indarra eman nahi badiogu, euskara betean egin behar dugu. Zeren lehenagotik ere ari ginen euskaraz, baina frantsesez ere bai. Lehen ere jakitun ginen diskriminazio sistema bat dagoe-la gure herrian, lurralde guztian, ñabar-

“ ”

*Kapital kultural baten
galera ari gara,
eta baditugu sortzaile
oso onak*

Amagoia Gurrutxaga

durekin; urratsa eman behar genuen.

Axut!-en hiru ardatz ditugu lanerako: sorkuntza, hezkuntza artistikoa –badugu pertsona bat horretara dedikatua, ikastetxeekin lanean–, eta hirugarren ardatzari deitzen diogu herrigintza. Gure sorkuntzak behar ditu tresneria propioak, eta hori eraikitzeke sortu genuen kolektiboa, gauzak lortzen saiatzeko, nahiz eta pareta baten kontra ari garen denbora guztian.

ARGI Arako idatziriko artikulua batean zera zenioen, Ximun:

“Euskal kultura ez da gai bat, baizik eta iragarki bat”. Zer nolako ezaugarriak ditu?

Fuchs: Lehenbizi, uste dut, definitu behar dela *kultura* bera. Errango dut niretzat zer den: gure jakintza irautea, transmisioa, nola bizi garen elkarrekin... Hizkuntza bizi baldintzak kulturaren oinarritzen dira. Kultura gaixorik baldin bada, hizkuntza ezin da bizi. Ez legoke eredurik, zeren arteak ereduak sortzen ditu gure bizitzarako. Nik lehen muxua ematen ikasi dut zineman, pelikulak ikusiz, eta orduan, ez badut zineman ikusten musurik euskaraz, jakingo dut musu ematen espainolez edo frantsesez. Tximinoak gara denok, imitazioz eraikitzen gara. Orduan, hori ez dagoe-nean, debeku baten antzerako zer baita euskaraz musukatzea, maitatzea, sentitzea... Debekatua zaigu, eta debekua martxan da oraindik. Ez da frankismoaren edo Frantziako errepublikaren izar horien molde berean gertatzen, *Bizkarsoro*-n ikusten zen eran, baina ekonomikoki ezinduak gara, eta horrela egonik ez da tarte handirik ezintasunaren eta debekuaren artean.

Iragarkia errealki hau da: zenbakiak egitea; horrenbeste ikusle, hainbeste haurrek ikusi dute halako. Erraten digute ez garela hainbeste irekitzen frantsesei, ez garela erakargarriak; hori ere beste iragarki bat da. Bordeleko nire fakultateko irakasleak esaten zuen euskal antzerkiari zangoetatik kiratsa dariola.

Gurrutxaga: Iragarkiez hitz eginda, aipa dezagun publizitatea. Uste dut kultur politikek asko dutela hortik. Publizitateak jendearen desioak ukitzen omen ditu, hori omen arrakasta edukitzeko gakoa. Kulturara ekarriz, nire galdera da: gaur egun daukagun kultur panorama, erakusten diguten iragarki horrek desioa pizten digu kultura euskaraz egiteko, euskarazko kultura jasotzeko, bizitzeko, izateko? Nire ustez, ez.





Gogoan dut laborari txikiek zer nolako egurra eman zioten Eusko Jaurlaritzari garai batean, ez zutelako egin nahi makro produkziarik, zerrikeriak bota nahi ez zizkietelako beraien soroei, burujabe izan nahi zuten... Instituzioak gero eta gehiago estutzen ari ziren garaian, saltoki handien aldeko politikak egiten ari zirenean, Jaurlaritzak atera zuen iragarki bat “aupai!” eslogana zera mana. Bazirudien izugarri maite zituztela egunerokoan txiki-txiki egiten ari ziren baserritarrak. Nik inpresioa daukat kulturarekin gauza antzekoa egiten dutela: beti daude kulturaren eta euskararen alde, baina beraien eguneroko praxia beti da erdarazkoaren pultsioa aktibatzeko jarduna.

Iragarki moduan, afixa ona izaten ari da *Miñan* antzezlanak; sekulakoa egin du antzokietan. Horren atzean dagoen Ander Lipusi, baina, duela gutxi entzun diogu akituta dagoela, atsedena behar duela, gogoetatu behar duela zertan ari den... Oso nekagarria delako antzerkigintzaren egoera. Ximun, ezagunak zaizkizu hitzok?

Fuchs: Higaduratik asko du, bai. *Miñan* izango da euskarazko antzerkiaren historian emanaldi gehien lortu duen antzezlanak, urrundik. Ez dut ezagutzen Frantzian horrenbeste emanaldirik egin duenik kurtso honetan, Espainian ez dut ezagutzen ezta ere. Kristoren gertakaria

“ ”
Berdin da: ari gara zoroak bezala oihuka biluzik basamortuan, eta ez du eragin handirik

Ximun Fuchs

izan da. Hamar-hamabost urtean behin lortzen du antzezlan batek komunitate oso bat antzokira gerturatzea. Eta, Lipusen antzerki taldea, Artedrama, justu-justu bizi da. Hori da errealitatea. Justua den edozein herrialdek zainduko lituzke, baina hemen ez da hori egiten. Eta Euskal Herria ez da herrialde pobrea. Aski da egitea errepidea, AP-8a nahi bada, ikusteko badirela enpresa potoloak, badela dirua.

Zailtasun horiengandik higatuko ziren Artedramakoak. Baina ez konpainia moduan, zabalagoak baitira; gu geu bezala, herrigintzan ari dira asko, instituzioekin-eta, gazteekin lanean. Etorri izan dira hona, Ipar Euskal Herrira, askotan dirua galduta. Baina beraientzat inportantea da hau.

Guk badugu egitearen jakitate bat, instituzio guztiei hori partekatzeko prest egon gara beti, erraten digute

baietz, eta kontrako norabidea hartzen da beti. Bizkarra ematen zaio euskal kulturari eta euskal antzerkiari. Horixe gertatu da Euskal Hirigune Elkargoaren kultur erreformarekin, kasurako. [Hezkuntza ministro ohi Jean-Michel] Blanquer-ek amesten zuena Hiriguneak ipini du martxan: debekatu da euskal sorkuntza sostengatzea eskoletatik. Eta horrek ez du oldartze handi bat ekarri euskalgintzaren aldetik. Zeren bakoitza gira bere gauzan, bakoitza bere aldetik, ezin heldu. Horrek sortzen digu arazo bat: ez dugula indar harremanik lortzen ahal. Ari gara zoroak bezala oihuka biluzik basamortuan, eta ez du eragin handirik. Higadura, aipatzen genuena, hortik ere heldu da.

Gurrutxaga: Lanarteatik aritu izan naitzen beste elkarte eta diziplinetako jendearekin hizketan, ondorio horretara iritsi gara: prekarietateak sarri ekartzen duen ondorioetako bat da atomizazioa. Bakoitza bere ipurdia salbatu behar horretan aritzea, eta batzuetan, gainera, ukondoak atera eta elkar oztopatzen. Denak eramaten zaitu zeurea salbatzera, eta egoera eztanda egiteko zorian dagoela ohartzean, bakarrik ikusten gara. Dinamika horiek dira instituzioetatik sustatzen direnak, intereseko zaie, eta ez sormen aldetik baldintza onak edukitzea, saretuak egotea, eta hortik sistemarekiko kritikak zabaltzea. Hori da puskatu beharrekoa, baina puskatzen zailena ere bada: jendeak jan egin behar du.



Bizitzeko, zerbait behar baldin bada, hori dirua da. Lanarteak duela gutxi inkesta bat egin du, *Euskal Artisten Lan eta Bizi Baldintzen I. Inkesta* deiturikoa. Galdetegia bete dutenen artean, hamarretik ia zazpik euskaraz soilik sortzen dute, eta erdaraz egin bai baina nagusiki euskaraz egiten dutenak aurreko taldetxoari batuta, ehunekoa %92 da. Lagin horrekin, titular nagusi bat: euskaraz jarduten duten artistek 1.027 euroko soldata dute hilean. Hau da, 12.073 euro urtean.

Gurrutxaga: Prekarietatea ez da soilik euskaraz ari direnena, baina Lanarteak sortu genuenetik argi geneukan euskaraz aritzen direnak are prekarioago direla. Sektoreko langileen bizi baldintzak arakatzen hasi ginen, hizkuntzaren aldagaiari bereziki garrantzia emanda, eta ohartu ginen ez zegoela daturik, ez zifrarik, argi dago zergatik: interes nabarmena dago hizkuntzaren aldagaia desagerrarazteko.

Oraintsu argitaratu du Jaurlaritzak inkesta bat musikarien ingurukoa; sektoreko enpresa handiak edo patronala denarekin hitz egin dute, eta gero musikariekin, haien lan egoeraren inguruan. Guk galdeturiko ia dena galdetu diete, hau izan ezik: zein hizkuntzatan kantatzen duzu. Adina bai, jatorria bai, generoa ere galdetzen da... Baina hizkuntza ez.

“ ”
Prekarietatea ez da soilik euskaraz ari direnena, baina euskaraz aritzen direnak are prekarioago dira

Amagoia Gurrutxaga

Hego Euskal Herrian, frankismoaren aurretik, antzerkigintza zen herria kohesionatzen zuena, sekulako pisua zeukana hizkuntzaren alde. Gerora, Jaurlaritza hasi zenean laguntzak ematen, beti sostengatu izan ditu euskarazko eta erdarazko lanak. Horrek guztiak ekarri gaitu egoera honetara: arte eszenikoetakoek askotan euskaraz eta erdaraz egiten dute, haien diziplinaren ezaugarri delako, eta udalerrri batzuetan esaten diete, “a, zuk erdaraz ere egiten duzu? Ba erdaraz programatuko zaitugu, denek uler dezaten”.

Programatzaileen gehiengoa, gaur egun, udalak dira, eta geroz eta gehiago ari dira sartzen merkatu-logiketan, ea zenbat ikusle, entzule edo dena delako dituen bakoitzak. Erakunde publiko gisa ez lukete horretan sartu beharko; pro-

gramazioa ez luke sarreren salmentak markatu beharko.

Fuchs: Ustea erdi ustel, ordea. Inork ez ditu *Miñan*-en zenbakiak egiten, ezta beste hizkuntzetan ere. Aurreiritzi bat da sustatzen dutena, edota ezjakintasuna, utzikeria, alferkeria... Ez baduzu lortzen publikoa gerturatzea antzokira, programatzaile gisa, gauzak gaizki egiten ari zara. Antolatzailearen lana da ikuslea etorraraztea, ez sortzailearena.

Gurrutxaga: Badakizu zein den beraien esplikazioa: “Artistek ere autokritika egin beharko dute”. Uste ustel hori, euskaraz egindakoa kalitate eskasekoagoa balitz bezala saltzea, jendeari interesa-tuko ez balitzaio bezala...

Aipatu dugun inkestan beste datu hau ere esanguratsua da: azken urtebetean jardun artistikoa uztea pentsatu du hirutik batek. Tartean dira era amateurragoan ari direnak, baina sorkuntza ogibide printzipal dutenenak hartuta, jarduna uztea ia erdiak pentsatu du. Benetan larria da.

Gurrutxaga: Kapital kultural baten galeraz ari gara, eta baditugu sortzaile oso onak. Kontutan hartu behar da gure inkesta bete dutenen ibilbidearen batz besteko urte kopurua 22 urtetik goragokoa dela, hau da, honetan urte pila daramatzatenen erdiak pentsatu du azken urtean lana uztea. “Ondo” daudela erantzun dutenen artean ere higadu-



ra oso handia da. Ez dakit jendeak zer pentsatzen duen, sortzaileek dirutzak irabazten dituztela, artistek ez dutela kolpe zorrik jotzen... Batez ere jendaurrean ageri diren artistek esaten digute ez daukatela aukerarik haien lana jendeari erakusteko, zabaltzeko, ikustarazteko. Etengabeko sortze eta promozio prozesuetan dabiltza, sare sozialetan eta abar, gero jendeari ezin iristeko.

Ipar Euskal Herrian, Ximun, intermitenteen erregimena deiturikoa bada, hilabeteko ordainsaria ordaintzeko. Erran behar da ere lanordu kopuru minimo bat bete behar dela, emanaldi kopuruak bermatu... Euskaraz sortzen duenarentzat zein da egoera? Minimora iristea zail?

Fuchs: Langabezia mota berezitu bat da intermitentearena, jendaurrean aritzen garenoi egokitua. II. Mundu Gerran sortu zen, eta ordutik sustatu da, pentsatu izan delako onura komun bat dela kultu-

“ ”
*Ikaragarria da zer nolako
mastodonte bihurtu
den eskakizun
burokratiko gorpila*

Amagoia Gurrutxaga

ra, eta, elkartasunez, prestazio hori eskaintzen zaigu. Baina zer gertatzen da? Gure kalkuluen arabera, azken urteotan hamahiru plaza galdu direla antzezlanak emateko.

Ipar Euskal Herrian bakarrik ezin dela bete diozu?

Fuchs: Ezinezkoa da. Egoera negargarria bilakatu da, zinez. Entzule oso ona da Ipar Euskal Herrikoa, ohituta da goena antzerkia ikustera, zaletua dena;

baina erakunde mailan negargarria da. Ekosistema erabat hautsia da, harrokeriaz edo harropuzkeriaz, utzikieriaz, ez dakit. Baina bertatik hautsi da, ez da etorri Paristik. Hautsi da hurbileko politika publikoek eraginda, eta garunen ihesaldi bat ari da gertatzen euskaratik frantsesera, artisten artean bezala zientzietan eta abarretan ere bai.

Plazak galdu dira, eta horrek, sortzaileari ez ezik, ikusleari ere eragiten dio.

Fuchs: Horren ondorioz denok bilakatzeko gara elbarritu mentalak. Ez dugu gehiago kapazitaterik gure emozioak eta pentsaerak lotzeko. Hezten ditugu gure haurrak esanez “ongi da euskaraz mintzatzea”, baina ez dizkiegu ematen horretarako gaitasunak. Ez da gehiago arnagunerik izanen, galdu dira. Eskerrak euskalgintzak bere horretan eusten dion, herritarrek lortzen dute, libertimenduak aipatzen ahal dira, kabalkadak batzuetan... Baina berdin da: libertimen-

dua ikustera joan naiz eta jendeak hitz egiten du frantsesez inguruan.

Hemengo erakundeak, eskumakila hartuta, garai ilunetara ari dira itzultzen. Uste dut ez dela sortzaileen arazo bat, baizik eta herritarrena. Eskuin edo ezker, berdin da: ni ez naiz gai esateko ezker-eskuin zein den bakoitzaren proiektu politikoa kultur mailan. Denek bizkarra ematen digute. Hizkuntza ezarri gero aurrean, beti bada bozen galtze beldurra, edo aliantza politiko bat haserretzekoa. Eta bitartean sua biltzen dugu, zeren euskarafoboak ez dira gelditzen. Antzezlea izateaz gain, herritar gisa diot: ez dugu honetan pentsatu nahi? Nola agurtuko dut nire ama, nire aita, hiltzen direnean, ez baldin badakit pertsona bat euskaraz agurtzen, ez baldin badut eredurik? Egingo dut frantsesez. Auzia dagoeneko gure intimitatearen kolonizazioan sartzen da. Frantziak baditu politikak bere hizkuntza eta politika garatzeko, eta esparru guztietara iritsia da: kuotak, hizkuntza... Dena. Eta hala ere zailtasunak dituzte beraiena garatzeko. Eta gu haiekin lehian gara. Desorekatua da.

Gure indarguneak ere baditugu, dena dela. Euskal komunitatea da lehen-lehena. Atxikimendua izugarria da, publikoak segitzen gaitu eta berdin du zer egiten dugun. Bada gosea, bada nahia, baina falta da tresneria. Eta bada zerbait lortzen ez duguna: antzoki batzuetara jende hori etortzea. Hori ez da guk lortzen ez dugulako, baizik eta kolonizatuaren konplexua biziki barneratua dugulako. Ez gara sentitzen ongi etorriak leku horietan, iruditegia ez da gurea, ezta zeharkako komunikazioa ere, nola jantzia den jendea, nola adierazia den gauza... Gure lekua ez izateko eginga da. Horiek dira Frantziak eta Espainiak dituzten indarrak esparruak eta tenpluak norenak diren adierazteko.

Bestalde, Euskal Herria hiru administrazioetan banatuta egonik, paper kontuak asko korapilatzen

“ ”

*Indar harreman bat
sortu behar dugu,
euskal kultura zentzurik
zabalenean hartuta*

Ximun Fuchs

zaizkie artistei. Hala adierazi izan du Lanarteak.

Gurrutxaga: Eta Hego Euskal Herrian lau ogasun daude, udalek haien ereduak dituzte... Burokraziaren makineria gero eta handiagoa da, nabarmena da. Egin genuen inkestaren osagarri, hemezortzi elkarrizketa luze egin genituen jardun honetan oso beteranoak direnekin, diziplina ugarikoak, haien esperientziak jasotzeko. Denak zeuden ikaratuta zer nolako mastodontea bihurtu den eskakizun burokratikoaren gorpila. Jendea iri loa kentzen dion kontuetako bat da.

Amaitzeko, politika bateratuen faltaz ari garela-eta, indarra zertan ipini beharko litzatekeela uste duzue?

Gurrutxaga: Hainbat puntu aipatuko ditut, eta osatu gero, Ximun. Lehen-lehenik emendatu behar dira aurrekontuak, eta ez Guggenheim bat egiteko, baizik eta egunero ari denaren bizimodua hobetzeko, bideragarri egiteko. Bestalde, bere garaian barre egin ziguten arren, “Etxebarri institutua” behar dugu: euskal kultura nazioartekotzeko institutua dauka Jaurilaritzak, Etxepare, eta hor sartzen dituzte zazpi herrialdetako artistak, baita erdaraz egiten dutenak ere. Ados, kanpora begiratzea oso ondo dago, baina behin barrura begiratu ondoren. Eta azkenik, aipatu nahiko nituzke hedabideetako kuotak. Proposatu izan diegu instituzioei kultur programa-

mazioan kuotak ipintzeko, eta erantzun izan digute “behartuta” ez goazela inora. Eta nik diot kuotak ipintzea ez dela behartzea; euskarazkoaren alde egiten ari zara.

Fuchs: Aurrekontuak behar dira, baita azpiegiturak ere, ez da dudarik, eta ez dakit kulturari loturiko pentsamendua nola proiektatzen ahal den legez... Uste dut hezkuntzatik hasi behar dela: ikasle guztiek eduki behar dute eskubidea urtero gutxienez antzezlan bat, film bat, poesia asteak, bertsolaritza... aztertzeke. Guztira urtean hamabi film, hamabi ikuskizun. Euskal Herriko sisteman pentsatuta, betiere. Horretaz aparte, kultur ekosistema berezitu bat eraiki behar dugu, zeinetan sartuko diren irakasleak, programatzaileak, komunikabideak, sortzaileak... Zerbait bizigarria eta osagarria, zerbait sinplea. Programazioetan-eta nik ere uste dut behar dela behartu: herritarrentzat eskubide bat den heinean, eskaintza egon behar du. Gero jendea joango da ikustera edo ez.

Gurrutxaga: Gaur egun dauzkagun tresnei ere erreparatu behar diegu. Badaukagu EiTb, baina oraindik ez dago irrati kate bat entzuleari erakusteko euskaraz sortzen diren lanak. Betiko lau ipintzen dira behin eta berriz. Nork bermatu behar du nire eskubidea EiTb egiten ez badu? Horretan gaude, eta ikusten da ez dela zirkinik ere egiten dauzkagun tresnak erabiltzeko. Proposatzen duzunean, gainera, begiratzen zaituzte taliban baten moduan: zeu ari zara hizkuntza gutxitua garela esaten, biziberritu behar dugula, ardura eta egin behar hori aitortzen diozu zure buruari, baina hitzetatik ekintzetara pasatzerakoan Bermudako Triangeluan galtzen zara.

Fuchs: Behar gara kasko urdinen sinbolotik atera. Sinpatikoak izaten saiatu gara, baina horrek ez digu funtzionatzen. Indar harreman bat sortu behar dugu. Euskal kultura zentzurik zabalenean hartu, euskaraz ari garen eragile guztiok batu, indar metaketa bat sortu eta gaiari heldu. ●

BABESLEA:



TARSILA DO AMARALEN LANA, BILBON

*Tupi or not tupi,
that's the question*

1920ko hamarkadan, Brasilgo hainbat artista, idazle eta pentsalarik bere herriarentzako nortasun propioa eta modernoaren sortzeko proiektu kultural berritzaileari ekin zioten. Horrela, Oswald de Andrade poetak Brasilgo modernitate kulturala izango zenaren gidaliburu gisa *Manifestu antropofagoa* idatzi zuen, erabateko artefaktu kulturala. Manifestu horretan biltzen ziren ideiak eta manuak margolan boteretsu batean irudikatu zituen Tarsila do Amaral artistak, *Abaporu*, egun Brasil modernoaren ikur bilakatu den obran. Bere lanak ipini dituzte ikusgai Bilboko Guggenheimen, ekainaren 1era arte.



JONE ALAITZ URIARTE



TARSILA DO AMARAL LICENCIAMENTO E EMPREENDIMENTOS S.A

Garai berdintsuan, txikituta eta dekadentzian zegoen gerren arteko Europan, artistak mugimendu artistiko baten bueltan batzen hasi ziren, dela surrealismoa, dela dadaismoa, kubismoa, eta *ismo* bakoitzak bere manifestu propioa zekarren, abangoardiako mugimendu artistiko jakin horren norabidea eta ideia nagusiak bilduta. Dakigunez, Paris izan zen mugimendu horien epizentro nagusia, baina ez bakarria. Tendentzia abangoardista horiek kontuan izanda, baina Europaren eragina, izaera koloniala eta zapaltzailea agerian utzita eta, era berean, deuseztatuta, Oswald de Andradek *Manifestu antropofagoa* argitaratu zuen 1928an.

Testua probokatzailea da, poetikoa eta sinbolismoz betea. Brasilgo nortasun kulturala pentsatzeko modu berri bat planteatzen du bertan. De Andradek, metafora gisa, kanibalismoa proposatzen du Brasilek mendebaldeko kultu-



Tarsila do Amaral, 1925ean.

rarekin nola erlazionatu beharko lukeen azaltzeko: irentsi, digeritu eta berezko zerbaitetan eraldatu. Manifestuan indigena kanibalaren figura goraiatzaren da, askatasun eta benetakotasun kulturalaren sinbolo gisa. Ideia horretatik dator *tupi or not tupi, that's the question* lelo famatua, indigenismoa eta mendebaldetik datorren eragin kulturala maila berean ezarri nahi dituen pentsamoldea.

Manifestuak, inplizituki, imaginario berri eta puru bat exijitzen du, eta Tarsila do Amaral (São Paulo, 1886-1973) artista izango da Brasilgo nortasun kultural modernoari irudi eta formak emango dizkiona. Tarsilaren –hala da bere izen artistikoa– obrarik ezagunena, hain justu ere, testu hori irudikatzen duen lana da, *Abaporu* izenburua daramana. *Abaporu*, tupi-guarani hizkuntzan, “gizona jaten duen gizona” esan nahi du. Berehala bilakatu zen Brasil modernoaren sinbolo. Hanka handidun figura antropomorfitik desproporzionatua ageri

da lehen planoan, esku erraldoia-ekin ahora zerbait daramana. Zeru urdina, eguzkia izan zitekeen astroa erdian eta Tarsilaren ekoizpenean hain ugaria den landaredia kaktus forma hartzen du margolan honetan. Trazua garbia da, formak solidoak dira eta exekuzioa sinple bezain eraginkorra da. Emaizta zoragarria da.

Pena da obra hori erakusketan honetan aurkitu ez izana, izan ere, Tarsilaren atzera-begirako garrantzitsua da egun hauetan Bilboko Guggenheim Museoa aurkeztzen dena. Ehunka obra erakusten dira museoko 201, 202 eta 203 aretoetan, eta Tarsilaren obra artistikoa ezagutzeko aukera paregabea da. Kolore biziak, forma geometrikoak, exotismo orekatua eta naturaren oparotasun sentzuala agertzen zaizkigu lehen begi-kolpe batean. Obrak orden kronologiko batean aurkeztzen dira, eta 1920etatik 1950eko bukaera arteko ibilbidea zeharkatzeko gonbita egiten zaigu. Tarsilaren margolanen, marrazkien eta zirriborroen bitartez, hiru hamarkadetan zehar hazten eta eraldatzen doan herri baten bilakaeraren lekuko izango gara: hiri eta paisaiaren aldaketak ikusiko ditugu, borroka sozial eta politikoen aldaketak, eta etengabe bere burua eta egiteko modua auzitan jarri eta berritzen joango den artista baten lanarekin egingo dugu topo.

EUROPAN IBILIA

Tarsila São Pauloko estatuan jaio zen, familia kultu eta aberats batean, lursail handien jabe izan zen bere aitona. Gazte-gaztetatik Europara bidaiatu zuen, eta 1920an egin zuen bere lehen egonaldi artistikoa Parisen. Orduan, boladan zegoen kubismoak influentzia nabarmena izan zuen garaiko bere obretan, eta Brasilera itzuli zenean kubismoaren arauak Brasilgo paisaia eta natura exotikoari aplikatu zizkion. Hasiera honetan forma sotilak marrazten zituen, geometria ardatz, koloreak nabarmentzen ziren iruditegi inklusibo batean. Urte luzez Paris eta São Paulo artean bizi zen, eta brasildarra izanik, hiriburu frantsesean exijitzen zitzaion kota exotikoa iraultzen jakin izan zuen, eta Brasil moderno bat irudikatu nahi



zuen, bai bere margolanetan, baita bere janzkera eta izateko eran ere.

Handik urte batzuetara, artikulua hasieran aipatutako Oswald de Andradekin ezkondu zen. Orduetik aurrera, bere obrak erabateko biraketa pairatuko zuen: primitibismoa eta indigenismoa bilakatu zituen ardatz, arrazen arteko nahasketa, kultura hibridoa eta popularra den hori islatzen hasi zen. Brasilgo modernitatea margotzen zuen artista da Tarsila, eta horretarako kode eta tendentzia berriak sortu ditu. Ordu-ra arte egiten ziren forma eta konposaketa identifikagarriek sinbolismorantz joko zuten, eta ikusizko alfabeto berri baten adierazle izango ziren. Koloreen paleta definituz joango zen; bere mar-

golanek kolore moreak, urdin eta berde ilunak uztartu zituzten guztiz identifikagarriak ez diren agertokiak sortuz. Koloreen erabilerrari buruz hala dio Tarsilak: "Gure berdea basatia da. Benetako brasildarrok kolore kontrasteak maite ditugu. Caipira petoa naitzen honek aitortzen dut niretzat ederrak direla gustu txarrekoak omen diren zenbait nahasketa".

1929an, New Yorkeko burtsaren crackak eragin zuzena izan zuen Tarsilaren ondarean: herentzian zituen lursailak galdu zituen. Galera horrek modu xumeago batean bizitzera behartu zuen eta, bizi-baldintza berriak eraginda, langileriaren borrokara hurbildu zen. Garai horretan Sobietar Batasunera egin zuen bidai batek eta orduko irakurketa iraultzaileak isla izango zuten bere ekoizpenean: orduko bere pinturak eta muralek langileriaren borrokak, klaseen arteko ezberdintasunak eta emakumearen rola izan zuten ardatz. Guggenheimen ikus daitekeen koadro batek, *Operários* (1933) Diego Rivera artista mexikarraren muralak ekartzen dizkigu gogora.

1950eko hamarkadan, Brasilgo hiri-paisaiak nabarmen aldatu ziren. Horren lekuko da, adibidez, Oscar Niemeyer arkitektoak Brasiliako hiria ikuspegi moderno batetik eraikitzeke egiten zuen ahalegin itzela. Horrela, Brasilgo auzo, fabela eta landa-eremuak, etxe-orratz garai eta etorbide handiengatik ordezkatu zituen Tarsilak. Metropoliaren garaian,


etapa berri horretan egindako lanek bazuten nolabaiteko erresonantziarik Maria Helena Vieira da Silva artista portugaldarrak margoturiko hiri-paisaiekin.

Ezin artikulua hau bukatu *Abaporu*-ra bueltatu gabe. Egund, artista brasildar baten obrarik garestiena bilakatu den hau, hainbat informazioaren arabera 40 bat milioi dolarretan baloratuta dagoena, Buenos Aireseko MALBA museo pribatuko bildumaren parte da. Picasoren Gernika Madrilen ikusteak atsekabetzen bagaitu, imajina ezazue zer suposatzen duen brasildarrentzat haien kulturaren eta nortasunaren ikur den hori Argentinan egoteak. Paradoxikoa da oraindik ere mutur aurrean parrailatzen dugun kanibalismo kulturala. ●



LIBURUA

Hezurrak eta muina



BERTSOZALE.EUS

HEZUR BERRIAK

ANE LABAKA MAYOZ

SUSA, 2025

MADDI GALDOS ARETA

Idaska gorridun larrua, kimu sortu berria edo muin kolore biziduna. Liburuak dakarkigunaren aieru da azala, sortzeaz mintzo baita Ane Labaka Mayozen (Lasarte-Oria, 1992) lehen poema liburua; sortzeaz, besteak beste, bizi emateaz eta idazteaz. Lotan idatzitako 49 poema ernek osatzen dute *hezur berriak* (Susa, 2025) liburua, amatasunaren muin-muinera garamatzen olerki bilduma, aurkia eta ifrentzua osotasunaren zati bereizezin direla dioskuna.

Poema gehienak erditzeak bereizitako bi ataletan banatuta daude, *Aurrea* eta *Ondoa* izenburuak daramatzaten bi ataletan, alegia. Halere, aitzinsolasa bailitzan, idazketaren eta ama izatearen arteko harremana arakatzen duten lau poema dakarzkigu bildumak, oro har,


denbora ezari lotzen zaizkionak, norberarena behar zukeen baina besterendua den gelara garamatzatenak, eta ostein datozen poemak leitzeko talaia apropos eskaintzen dutenak: “Nola idatz liteke / -etenka ez bada- / harlauzak esne tantaz beteta dituen etxe batean?”

Identitateak nozitzen duen lurrikara betean den ni poetikoak haurdunaldia eta erdiondoa ditu hizpide nagusi, eta aldiotan bizitzen, sentitzen eta, bereziki, gorpuzten direnak xedatzen ditu. Zehazki, ohiko iruditeria xaloari itzuri egin eta konplexutasuna dakar orriotara Labakak, poza eta beldurra bilbatuta, desira, zalantza eta errua uztartuta. Are, deigarria da oraindik tabu diren eta gizarteratzeko zail izan ohi diren auziek lerrootan duten lekua: hamabi asteko langak ostentzen duen ezinta-

sun soziala, ama berriek informatuta egoteko duten betekizuna, erdiondoko depresioa antzemateko frogen gizatasun falta eta amek jasaten duten biolentzia dira adibide.

Jazmina Barrera, Adrienne Rich, Mari Luz Esteban, Ione Gorostazu, Nahia Alkorta eta Leire Bilbaori egindako aipamenek ere kokatzen dute artefaktua, preseski, *Lokatza* poemak madarikatu eta deitoratzen duen isiltasunari hitzak jartzen baitizkio honek ere. Horrekin, amatasuna “amen gauza” izatetik harago doala aldarrikatzera dator liburua.

Hezur berriak, beraz, aproposa da irakurtzeko denborarik ez duten amak tarte batez inguratuta senti daitezen edota, hobe esateko, ama izan gabe amak begiratu ordeztu ikusi, eta egoki inguratu nahi ditugunontzat. ●



MUSIKA

'Queer' klasikoa



BALUARTE FUNDAZIOA

MONTERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Samuel Mariñoaren erreztaldi bat ez da ahots eder batez gozatzeko aukera bakarrik. Operaren munduak, erreztaldi lirikoarenak kasu honetan, bestelako estetika bat izan dezakeela egiaztatze aukera bat da. Eta, era berean, kantuaren mundua etnia kaukasikoa, europarra eta familia oneko artistetara mugatuta ez dagoela egiaztatze aukera ere bada, Mariño berak dioen bezala. Beste errealitate batzuk eszenatokian egon daitezke eta daude, amets eginarazteko.

Mariñoaren kasua, ahots-tesiturari dagokionez, berezia da. Nerabezaroan bere ahotsean ez zen ohiko aldaketarik gertatu, eta tesitura agudoa mantendu zitzaion. Horregatik, gizonezko baten soprano-tesitura kasu bakane-tako bat da, modu naturalean, faltsete erabili gabe.

Egungo panorama lirikoaren ahotsik erakargarrietakoa izateaz gain, eszenatoki gaineko kantari ausart, urratzaile

eta aldarrikatzaileenetakoa izateagatik ere nabarmendu da. Ozenki aldarrikatzen ditu bere nortasuna –gizon *queer* bezala– eta bere homosexualitatea, eta musika klasikoaren ingurune oraindik enkorsetatua eraldatu nahi du. Bere opera barrokoko erreztaldiak trabestismo eta ahots-birtuosismoazko show gisa bizi ditu, gero eta jarraitzaile gehiago batuta munduan zehar, batez ere belau-naldi berrien artean.

Oraingo honetan Mariño liluratu gintuen musika barroko dotore, zaindu, musikaltasun handiko xehetasunez betearekin, eta ohituta gaudenerako, eszenaratze bitxi baina dotorearekin, zalantzarik gabe. Emakumezko janzkera dotore batekin agertu zen, takoi altuekin. Soprano askok nahiko lukete horrelako look bat izan.

Eta orain, gehien axola zaiguna: bere ahotsa. Händelen *Lotario: Scherza in mar la navicella* lehenengo ariatik, ahots berezi baten aurrean geundela egiaztatu

SAMUEL MARIÑO + GABETTA CONSORT

ZUZENDARIA ETA BIOLIN

BAKARLARIA: Stefano Barneschi.

ZER: Purcell, Händel, Geminiani, Vivaldi eta Graunen lanak.

NOIZ: maiatzaren 9an.

NON: Iruñeko Baluarte Jauregian.

ahal izan genuen. Bere koloraturak, bere agudo distiratsuak eta bere fraseatzeko ederra izan ziren saio osoaren ezaugarriak. Egia da ez duela ahots-bolumen handirik, eta bere harmonikoak mugatuak direla. Ez da ahots handi bat. Baina bere interpretazio biziak, karga emozionalak, eta, arlo teknikoan, esan dudan bezala, koloraturetarako hain erraztasun handiak, interprete berezi eta oso ona bihurtzen dute.

Unerik ederrenetako bat *Lascia la spina* izan zen, Händelen *Il trionfo del tempo e del disinganno* oratoriokoa. Ikaragarritzko fintasunez eta beste bertsio batzuetan entzuten ez diren ñabardurekin interpretatu zuen Mariño.

Jakina, Gabetta Consort taldearen lana nabarmendu behar dugu, zuzendari eta kontzertino lanetan Stefano Barneschi aritu baitzen. Bai bere parte-hartze instrumentaletan, bai bakarlaritari lagunduz, dotore, afinatu eta guztiz konpaktatua aritu zen taldea. ●

Gasolioaren profeta

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ekologista maltzur horiek herrialde guztietan estatu-kolpeak planteatzen ari diren garai honetan, zeinean klimaren izorramenduari loturiko angustia existentziala bilakatu den energia berriztagarri guztien artean gehien produzitzen dena, zorionekoak izan behar dugu, esperantzaz beteriko mezu bat dakarren CEO bat –eta CO2– agertu baitzaigu pasa den asteko aldare informatiboetan. Gorputz guztia dieselez lubrifikatuta, hitz egitean ahotik ke beltzezko hodeiak isurtzen, fede berri batera konbertitu nahi du Euskal Herria Josu Jon Imaz Pragmatismo Petrokimikoaren Eliza Goreneko aita santuak.

Etorkizuna garbi ikusi du: erregai fosilak ez dira ahaztu beharko genituzkeen iraganeko erlikiak, ondo gorde, mimatu eta azken tanta agortu arte

suarekin bedetatu behar diren likido sakratuak baizik. Eta horregatik, gogor egin du ideologia berdearen fede faltsuan sinesten dutenen kontra, haien moral bikoitza, bi azaleko kopeta, begi bakarreko negarra, atzamarrarekin seinalatuz: beti dabilta galbidean diren animalientatik eta landareengatik lantua jotzen; eta, aldiz, itsu, mutu eta gor geratzen dira giza-jarduerak desagertzeko zorian jarri duenean barnerrekuntzako motorren espezie guztia.

Aldarria argi dago: dieselak motorra behar du eta euskal automobilgintzak zu behar zaitu. Jendeak jada ez daki ze kotxe erosi ere. Agintariak: kaka nahastan ari zarete. *Kolega, non dago nire autoa?* pelikula dirudi honek, joder, estralurtarrak bakarrik falta zaizkigu. Eta ez da hain zaila ulertzea: karbono emisioak gutxitu nahi baditugu, estra-

tegiarik eraginkorrena karbonoa isurtzen jarraitzea da, baina ez antigoaleko kotxe zaharrekin, ibilgailu berriekekin baizik, auto-industria beste hogeitaz bizi dadin, gainontzeko guztia hiltzen bada ere.

Marmarti hippy progre belarjaleek esango dute Imazen diskurtsoak antz handiegia daukala betirako tabakoa utziko duela dioen norbaitek azkenea, benga, serio, hau benetan azkenea zigarroa izango dela dioen nikotina nazale baterenarekin. Kontua, ordea, ez da eman dituen datu ugarietatik bakarren bat egiazkoa ote den kontratatzea, azken finean “gasolio berriztagarria” kontzeptua merkaturatu zuen enpresa bateko ordezkariaz ari baikara. Kontua sinestea da. Sinestea, etorkizuneko mundu batean, zeinean denok eskutik emanda dantza egingo dugun berunik gabeko nektarraren zipriztinez osatutako ortzadar-koloreko putzuen gainean, batzuek tekno-fantasiatzat jo eta erabat baztertu zutena egia bihurtu zelako eta, Repsoleko kimikariek, azkenean, lortu zutelako eguzki-izpiak hidrokarburo botiletan sartzea.

Oh, Josu Jon Imaz, dieselaren mesias dohatsua, eskerrak ematen dizkizugu. Mila esker, krisi klimatikoaren ezinegonak bizi gaituen garai honetan beste inork eskaintzen ez duena ekartzeagatik: atzoko egunen tuboeskape usain lasaigarria, etorkizuneko promesaren itxura daukan Brent upel batean sartua. Mila esker, eta bat gehiago, planeta hau gure planetan daukagun guztion bidea argitzeagatik, orain argi baino argiago baitago, gure arteko xextrak alde batera utzita, nori begira jarriko garen inguru guztia behin betiko kiskalita geratzen den egunean. ●





errotu

euskal eskola
publikoaren 32. jaia
urduña ekainak 1

antolatzailea

ehige ✨

babeslea

 **ARGIA**





Podcast berria

Galdera basatiak

Igandero **argia.eus**-en.

Beti haurrak al gara galdera
existentzialen aurrean?

Iñigo Martinezen podcasta 



 **ARGIA.eus/podcast**